



**San Migel egunarekin jendetza espero da Aralarren. Uharte Arakilen eta Olaztin festak** / 12-13



**XII. Olatzagutia-Urbasa bihar jokatu da, 10:30ean, berrikuntza nabarmenekin** / 19

**Gobernuari eusten dion laukoak Sakanan bost lan egin nahi ditu superabitarekin** / 7

**Bi aldarrikapenen alde kalera ateratzeko deia: lan istripuen kontra eta pentsioen alde** / 9

**Euskara batuaren sorreratzat hartzen den Arantzazuko batzarrean sakandar bat izan zen** / 2-3

**Etxarri Aranazko Abesbatzak NAK jaialdiaren bukaera kontzertua egingen du bihar, Iruñean** / 23

# 25 urte pedalei eragiten

Igandean Sakanako Bizikleta Egunak Irurtzun eta Altsasu lotuko ditu / 14



**Sakanako Gida Komertzialean**

agertu nahi baduzu urriaren 31ra arte duzu aukera.

948 564 275

publi@guaixe.eus

publizitatea@guaixe.eus



**BADATOR GIDA!**



Euskaltzaindiako kideak Arantzazun 1972ko garilaren 29an. Satrustegi atzeko lerroan, 3.a eskuinetik. WIKIPEDIA

# Batua, sorrerako gure lekukoa

Euskara estandarren, batuaren, 50. urteurrena ospatzeko Euskaltzaindia Arantzazura bueltatuko da ostegunean. Hiru eguneko biltzarra prest du. Batuaren mugari izan zen 1968ko biltzar hartan sakandar bat izan zen: Jose Mari Satrustegi

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA  
1967. urtea. Frankismo beta. Euskaltzaindiko buru Manuel Lekuonak telefonoa jaso eta akademiako hiru kideri hots egin zien. "Bihar premiazko bilera!" Ez zien argibide gehiago eman. Trenez iritsi zen Zumarragara. Hitzordua 09:00etan zen eta han zituen zain Lekuona bera, Koldo Mitxelena eta beste euskaltzain bat, litekeena da Luis Villasante izatea. Haiekin beste gizon bat dago, Madrildik propio etorria eta aurkezpenak egin dituzte: "Satrustegi, Serra

Estruch da jaun hau, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko funtzionarioa". Gizalegez elkar agurtuko zuten. Boskoteak geltokia utzi eta Urretxuko komentu baterantz jo dute, bilera egiteko toki egokia baitute han. Goiz guztia emanen zuten han hizketan.

Funtzionarioak honako mezua eman zien lau euskaltzainei: "euskararen dialektoen, azpidialektoen eta aldaeren zatiketarik arrisku larrian jartzen du hizkuntza beraren biziraupena. Egoera horrek etorkizunean

konponbide zaileko arazoak sortuko ditu hezkuntzan eta hedabideetan". Adibidea ere jarri zien, "euskara irakaskuntzan ezarri gero, testu-liburuak euskalki bakoitzean egitea zaila izateaz aparte oso garesti litzateke". Euskal Herri guztirako ariko ziren hedabideen sare bat bideragarria ez litzakeela izanen ere gatzigatu zien. Funtzionarioak euskaltzainei euskara batzearen premia azpimarratu zien, etorkizuneko erronkei berrimekin erantzuteko bidea hura zela ziurtatuz.

Egoera deserosoan gelditu ziren euskaltzainak. Egoerari laztasuna kentzeko bazkaldu ondoren Serra Estruchek gehitu nahi izan zuen bera katalana zela. Bilera bukatuta bidea alderantziz egin zuten eta erregimeneko funtzionarioa tren geltokian agurtu zuten. Lau euskaltzainak nasan zeudela Lekuonak zehatz eta arin: "Koldo, berehala hartu beharko duzu horren ardura". Mitxelenak entzun eta isil, baiezko biribil.

Satrustegik berak Fontes Linguae Vasconum aldizkariaren 90. zenbakian idatzia utzi zuen moduan: "topaketa bueltarik gabeko bide baten abiapuntua izan zen". Jakina da Euskaltzaindiaren sorreratik beretik, 1918an, euskara estandarren gaia mahai gainean izan zutela euskaltzainek eta euskaltzaleek.

Hizkuntzaren Akademiak 50 urte bete behar zituen 1968an eta lurralde guztiak hartuko lituzkeen ospakizun egutegia prestatu nahi zuen. Baina euskal idazle gazteek batasunaren beharra premiazkoa jotzen zuten. Gabriel Arestik hala eskatu zion akademiari. Aipatu bilerak ere eragina izan zuen. Azkenik, 1968an hizkuntzaren estandarizazioari heltzea onartu zuen.

## Arantzazuko batzarra

Gipuzkoan salbuespen-egoera ezarri zuen Franco diktadoreak. Baimenik gabe bi pertsona baino gehiago elkartzeko debekatu zegoen. Baina akademiak beharrezko baimenak lortu zituen. Euskaltzaindiaren Kongresua lastailaren 3an, 4an eta 5ean izan zen, Arantzazun. Euskararen estandarizazioa, batua, zen aztergaia.

Satrustegik beste egiteko batzuk zituen eta, zailtasunak zailtasun (salbuespen egoeraz aparte ez zuen autorik), batzarrean lehen orduan joateko asmorik ez zuen. Lehen hizlariak bere jardunaren erdia esana zuela iritsi zen bilera gelara. Hura despedituta batzarreko mahai burutik Alfonso Irigoienek jakinarazi zion moderatzai-

le izan behar zuela. Satrustegi, ezustekoagatik pixka bat nahastuta, kontra egin zuen: "ez dut prestakuntza lanetan parte hartu, programatutako gaien inguruko ideiarik ere ez dut". Lekuona euskaltzainburuak erantzun zion: "hori bera nahi dugu. Zure egitekoan hotza izan". Beraz, Satrustegi Arantzazuko batzarreko moderatzailea izan zen.

Mitxelenak prestatutako txosten teknikoaren aurkezpena zen guztiek entzun nahi zutena. Bildutakoaren arreta bereganatu zuen. Ortografiari buruzkoa zen (morfologia, deklinabidea eta neologismoak ere batzarreko gai zerrendan zeuden). Mitxelenaren tesien aldekoen eta kontrakoen arteko eztabaidak suitsuak izan ziren. Satrustegik ikusi zuen giro hartan ezin zela inolako adostasunik lortu. Defentsa bitarteko gisa, jendea baretzeko, eten labur bat egitea proposatu zuen. Eta iradoki zuen bitarteko bide bat hartzea, etapaka ezarriko zena. Eta Mitxelenak ahopetik: "azoka kontua al da?" Etortzen zitekeenaz salbu gelditzearekin konforme gelditzen zela erantzun zion arbazuarrak. Atsedendian biak iritzia trukatzeko ari zirela Arestik agertu eta Satrustegik bileran izandako jarreraren kontra gogor egin zuen. Haren iritzi, amore emangarria eta etsigarria zen. Mitxelenak aurre egin zion. Lehenik galdetu zion bileran zegoen edo aditzera zuen. Arestik ez zela egon erantzun zuen. Mitxelenak isiltzeko eskatu zion, haren iritzi Satrustegiren jokabideak egoera salbatu zuelako. Azkenik lortu zuten ondorio bateratzaileak onartzea. Baina H hizkiaren polemika mahai gainean geldituko zen.

Gaur egun hain normala iruditzen zaigun euskara batuaren oinarriak han jarri zituzten. 10 urteko epea eman zuten arauak euskara idatzian jasotzen ziren edo ez ikusteko. Satrustegik batzarrean parte hartu zuen eta euskara batzeko lanetan segitu zuen.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia

5.9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Hizkuntza estandarrerako bidean

- **1571** Joanes Leizarragak "Jesus Krist Gure Jaunaren Testamentu Berria"n premia azaleratu zuen.
- **XVIII. mendea** Joanes Etxeberri Axularren euskara proposatu zuen.
- **XVIII. mendea** Literatur hizkuntza Gipuzkoako euskara.
- **XIX. mendea** Bizkaian eredu berezia sortu zen.
- **1918** Euskaltzaindik sorreratik hizkuntza komuna helburu du.
- **30eko hamarkada**. Resurreccion Maria Azkuek gipuzkera oinarritzat hartzea proposatu zuen
- **40ko hamarkada** Iparraldean nafar-lapurtera zen eredu.
- **1963** Txillardegiren gidaritzapean Euskal Idazkaritza sortu zen.
- **1964** Baionako Biltzarrean erabakiak hartu ziren.
- **1968** Ermuko bilera Gerediagak antolatuta.
- **1968** Euskaltzaindiaren Arantzazuko batzarra.

## Euskaltzaindia, bi ospakizun elkarrekin

Euskaltzaindia sortu zela mende bat bete da aurten eta hori ospatzeko akademiak aurten hasi eta heldu den urtean segida izanen duen egitarau zabalera prestatu du. Horren barruan euskara batuaren 50. urteurrena ezin zen falta. Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra, nazioarteko jardunaldia, ostegunean hasi eta larunbatean despidituko da. Doakoa da eta [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus) web bidez zuzenean ikusteko aukera izanen da.

Hiru egunetan hainbat gai izanen dira hizpide: euskara batuaren sorrera eta ibilbidea, hainbat arlotan dituen etorkizuneko erronkak, beste hizkuntzen estandarizazio prozesuak eta onartutako komunikazioen aurkezpenak. Ostiralean, 10:00etan, euskara batuaren geografiak saioa izanen da. Hiru administrazio eremuetan zein den egoera aztertuko dute. Castillo Suarez izanen da moderatzailea.

# Euskaltzaindiako kideekin klasean

Halaxe egon ziren Iñigo Aritza ikastolako hainbat gelatako ikasleak. Izan ere, urtero moduan Euskaltzaindiak bat egin du Nafarroa Oinezekin eta hileroko bilera Burundan egin zuen. Burundako lau alkatek ere harrera egin zieten

URDIAIN / ALTSASU / OLATZAGUTIA



Ikasleak gelan zirela iritsi zen Euskaltzaindikiko ordezkari Iñigo Aritza ikastolara. Arduradunen harreraren ondoren, euskaltzainek ikastola bera ezagutzeko aukera izan zuten. Hainbat gelatan sartu ziren eta ikasleekin hizketan aritu ziren, umorez. Euskaltzainek erakundearen egitekoa azaldu zuten eta web orria berriro dutela jakinarazi zieten (heldu den astean aurkeztuko dute). Eta haiek akademiari buruzko galderak egin zituzten eta Interneteko aterari "gabezia" opatu zioten: jokoen falta.

Geletako giro animatuaren ondoren, kanpoko aldean dauden bi haritzen ondoan ekitaldia laburra izan zen. Ikastolako abesbatzak Txomin Artolaren eta Joserra Gartziairen *Aberriarren mugak* kanta abestu zuten. Ikastolako presidente Eneida Carreñok hitza hartu eta Euskaltzaindiaren eta euskara batuaren urteurrenak gogoratu zituen. Carreñok adierazi zuen euskara batuak hizkuntzari batasuna ematen diola. "Arantzazuko batzarrean martxan jartzeko pauso ausart eta garrantzitsua eman" zutela gaineratu zuen. Pauso hori "ezinbestekoa" dela gaineratu zuen, "gure hizkuntza, gure altxorra eta ondarearen bizi iraupenerako". Gaineratu zuenez, "gizarteak zuen zerbitzua jaso du eta ikastolendako eta euskal kulturaren garapenerako euskarri izan zarete eta izaten jarraituko duzue". Ikastolen eta Euskaltzaindiaren proiektuak bizi daudela nabarmendu zuen azkenik.

Andres Urrutia euskaltzainburuak esker oneko hitzak izan zituzten. Euskaltzaindikiko kideek ekitaldia despiditu aurretik haritza landatu ikastolan. Ikasleei zuhaitza ongi zaintzeko eskatu zien propio. Gainera, euskaltzainek haritz-bonsaia



Euskaltzaindiako kideak haritz artean.

## EUSKALTZAINDIAKO KIDEAK IKASTOLAKO IKASLEEKIN UMORETSU ARITU ZIREN

jaso dute opari. Ikusteko dago non bukatuko duen, baina Nafarroako ordezkari Iñigo Aritza ikastolara joaten diren lau herrietako alkateak, hau da, Urdiaingo David Oroz (Sakanako Mankomunitateko presidentea ere badena), Altsasuko Javier Ollo, Olatzagutiko Mikel Azkargorta eta Ziordiko Patxi Bengoetxea. Harrera udaletxeko atean egin zieten. Elkar agurtu ondoren, denek elkarrekin talde argazkia egin zuten han bertan. Ondoren, bilkura gelara joan dan ziren.

### Herriz herri

Ikastolakoak despidituta Olatzagutiko udaletxera joan ziren. Han zain zituzten Iñigo Aritza ikastolara joaten diren lau herrietako alkateak, hau da, Urdiaingo David Oroz (Sakanako Mankomunitateko presidentea ere badena), Altsasuko Javier Ollo, Olatzagutiko Mikel Azkargorta eta Ziordiko Patxi Bengoetxea. Harrera udaletxeko atean egin zieten. Elkar agurtu ondoren, denek elkarrekin talde argazkia egin zuten han bertan. Ondoren, bilkura gelara joan dan ziren.

Azakargortak Euskaltzaindiaren mendeurrena eta euskara batuaren 50. urteurrena izan zituen gogoan. Burundako agintariak Miren Ustarroz eskultorearen lan bat oparitu zioten Euskaltzaindiari: trikuharri bat, Aralarren dagoen Hartzabalen gisakoa. Andres Urrutia euskaltzain buruak gogoratu zuen duela gutxira arte akademiako Onomastika eta Toponimia batzordea urtetan Olatzagutiko kultur etxean bildu zela. Horregatik, esker ona azaldu zion udalari. Ekitaldiaren ondoren, euskaltzainek hileroko batzarra egin zuten.

Hura despiditu eta gero, Urdiaineko bidea hartu zuten. Han bazkalduko zuten eta, despiditzeko herriko errota bisitatu dute. Josefina Iriberrik euskaltzainei eta haiekin batera zeuden udaletako agintari eta ikastoletako mugimenduko kideei segizioari errotaren martxaren inguruko argibide guztiak azaldu zizkien. Han despiditu ziren batzuk eta besteak. Euskaltzainek ostegunean hasiko den batzarra eta ikastolakoek 23 egun barru ospatuko den Nafarroa Oinez festa buruan zituztela.



Satrustegi 1963ko irailaren 15ean sartu zen Euskaltzaindian. BIDEGILEAK

## Arbazuarra euskaltzain

Jose Mari Satrustegi Zubeldia 1957an izendatu zuten euskaltzain urgazle. 1963an euskaltzain oso kargua hartu zuen, Orixerri lekukoa hartuz. 14 urtez Euskaltzaindik idazkaria eta 18 urtez akademiako Nafarroako ordezkaria izan zen. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Azkar, inorako bidetik

Eguna laburtuz doa, udazkeneko lehenengo egunotan berandu etorritako udak ez du hil nahi. Hauxe da sasoi urteko jardun berriko gutxi gorabeherako plana egiteko. Udaletik eta beste hainbat tokitatik jardun eskaintza ugari jaso ditugu; hortaz, despistaturik bazabiltza, mugi! Bete, bete zure agenda! Gero eta programatuago, eta lotuago, eta estresatuago, eta hainbat kontu gehiago, halaxeko bizitza eredu bizi baitugu. Lanetik atera, seme-alabak atondu, akademia edo tailerren batean ikasi, kiroldegian pilates edo beste jardueraren bat egin, afaldu, dena korrika, presaka, arin, eta dena amaitzean, Intermedio edo Hormiguero bezalako programa txatxuren bat ikustera. Tartean, mugikorrari edo ordenagailuari arreta egin beharra, familiakoei eta lagunei tarreak lapurtuta, eta neka-neka eginda, ohera eta biharamun goizean berriro lotu gurpilari.

Batzuetan, ematen du gauzak patxadan egiteko gaitasuna galdu egin dugula, denbora ere era konpulsiboan kontsumitu behar dugula. Neuk ere, dagoeneko agenda bete samarra dut,

### HAUXE DA SASOIA URTEKO JARDUN BERRIKO GUTXI GORABEHERAKO PLANA EGITEKO

tarreak faltan, nahiko nituzkeen gauza guztiak egiteko. Nolanahi ere, horien artean bada bat bereziki gustura egingen dudana, zehazki, irakurketa taldean aritzearena. Bai, hilabete eta erditik, lasai eta gustura, liburu bat euskaraz

irakurtzea, idazle eta kultura berriak, pertsonaia miresgarriak eta ziztrinak, abenturak eta desbenturak, egiak eta fikzioak, eta horien guztien gainean tertulia samur bat taldean, esperientziak eta hausnarketarako bide berriak trukatuz.

Horregatik, harrituta ikusten ditut gero era gutxiago irakurtzen delako estatistikak, irakurtzea baita bizitzan dudatan altxorrik handienetakoa. Marketin politikoa eta masa manipulazioaren garai hauetan, kalitatezko irakurketa egiten ez duen gizarte ezjakinagoa eta erabilgarriagoa baita, zerbait galtzen ari ote gara?

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluak bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluak erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Irurtzungo hamaikakoaren aurkezpena. UTZITAKOIA

# Euskaraldia bidea egiten hasi da Irurtzunen

Lehen izen emateekin batera Euskaraldiko Irurtzungo batzordeak Ahobiziz eta Belarriprestez osatutako bi hamaikako aurkeztu ditu. Aizpea euskaltzaleen topagunea eta Arakilgo Udala elkarlanean ari dira, arakildarrek ekimenean parte har dezaten

## IRURTZUN

Euskararen erabilerari bultzada emateko prest dauden lehen irurtzundarrak hasi dira ahobizi eta belarriprest gisa izena ematen. Haien artean daude udaleko, dendetako eta eskolako langileak, kirolariak, artistak, guraso elkarte eta beste elkarreetako kideak, hemen jaiotakoak edota Suitza eta Argentinatik iritsiak... Euskaldun osoak eta euskalduntze bidean daudenak, gazte eta heldu. Guztiak ere [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) web orrian eman dute izena.

Irurtzungo batzordeak Euskaraldian izena emateko kanpainarekin segituko du hurrengo asteetan. Gainera, euskara era-

biltzeko ariketa pertsonal eta kolektiboa hasi aurretik, azaroaren 18an, Euskaraldiari ongi etorria egiteko festa ospatuko dute herriko plazan.

Bestalde, Arakilen erabaki dute Euskaraldian izena ez ematea, herri txikiak izanik taldea sortzea zail ikusten zutelako.

Hala ere, arakildarrek Euskaraldian parte hartzeko aukera izanen dute, Irurtzunen izena emanda. Izan ere, Arakilgo Udala Aizpea, euskaltzaleen topagunearekin harremanetan dago eta Irurtzunen egiten diren ekitaldietan arakildarrek parte hartzeko aukera dute.



## Euskaraldiko asteburuko deialdiak

Euskararen erabilerari bultzada emateko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egiten den ariketa da Euskaraldia. Sakanako 10 herriko izena eman dute eta ariketa ezagutarazteko eta herritarrek izena ematera animatzeko ekimenak antolatzen hasiak dira.

**Uharte Arakilgo festak**  
gaur hasten direla eta, Euskaraldian izena eman nahi duten uhartearrek horretarako aukera izanen dute 19:00etatik 21:00etara, plazan.

**Olatzagutiko festen**  
barruan, berriz, Euskaraldiko photocalla egiten da bihar 13:00etan eta 20:30ean.

**Arbizun**  
Euskaraldiaren aurkezpena egiten dute bihar, 20:00etan, plazan.

**Altsasu**  
Batzordea Gure Etxea eraikinean bilduko da ostiralero, 19:00etan.

## AEKn behe mailetako ikastaroak hastera daude

Informazioa jaso edo izena eman nahi duenak bi aukera ditu: 948 468 258 edo [sakana@ae.k.eus](mailto:sakana@ae.k.eus)

## SAKANA

Sakanako AEK-k jakinarazi duenez, euskara zerotik ikasi nahi dutenek izena emateko aukera dute oraindik. Hasierako maila horiek hastekotan dira Altsasun, goizeko edo arratsaldeko ordutegian. Bakarren batek izena eman nahi badu Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakitik pasa daiteke informazioa eskatzeko. Edo bestela [itsasieuskaltegia.blogspot.com](http://itsasieuskaltegia.blogspot.com) blogean kontsulta dezake.

AEK-tik jakinarazi digutenez, hasierako mailakoak ez beste, gainontzeko ikasle guztiak aste honetan hasi dute ikasturtea. Irurtzunen, Arruazun, Etxarri Aranatzun eta Altsasun sortu dira taldeak. Taldeak ez daude itxita eta ikasturtea hasi berria denez, euskara ikasi edo dakiena hobetu edo aberasteko gogoia duena izena emateko garaiz dabil oraindik ere. Eskaintza zabal horri, gainera, autoikas-kuntzarako aukera gehitu behar zaio. Ikasketa telematikoko eskaintza maila guztietarako dute AEK-n.


Euskaltegitik gogorarazi dute euskara ikasten duten pertsona helduek Sakanako Mankomunitatearen beka jasotzeko aukera dutela.

## Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Luis Igeltzeekin pentsio duinen aldeko manifestazioaz
- Anabel Arraizarekin Zinemaldiaz
- Euskara batuaren 50. urteurrenez bi euskaltzainekin

**Ostiralero** 9:30ean  
**SAIOA** Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



**belexe**  
107.3 FM  
[guaixe.eus-en](http://guaixe.eus-en) ON LINE



AINTZANE MARIN MERCERO

## Giro ederra Ergoienako Egunean

Ibarraren eguna ospatu zuen Ergoienak larunbatean Unanun. Goizean Ergoienako bira jokatu zen eta artisau azoka izan zen. Bitartean bisitariek artisau azoka bisitatzeko aukera izan zuten. Frontoian bazkaltzera ehunen bat pertsona elkartu ziren. Giro ederrak iluntzera arte segitu zuen plazan, dantzaldia baitzegoen.

## Txistor egunerako atzerako kontaketa hasi da

Arbizuarrek auzolanean eta edozeinek pintxo lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

### ARBIZU

Arbizu Udala Txistor Egunean 10. edizioa prestatzen hasi da. Lastailaren 14an izanen da txistorra ardatz duen festa. Bezperatik mugimendua izanen dela aurreratu du udalak. Eta egunean egitarauan ohikoak diren pintxo lehiaketa, azoka, garai bateko lanen erakusketak, pintxo dastaketak eta beste izanen dira.

Guztia behar bezala prestatzeko udalak arbizuarren laguntza ezin bestekoa du. Txistor egunean auzolanean parte hartu nahi dutenek udaletxean eman

dezakete izena, 948 460 017 telefono zenbakira hots eginez, info@arbizu.eus web orrira idatziz edo zinegotziei esanez.

Ospakizunak, atzera ere, txistor-pintxo lehiaketa hartuko du. Parte hartu nahi dutenek lastailaren 10eko 14:00ak arte udaletxean izena emateko epea. Parte-hartzaileek Arbizuko txistorra osagai nagusi duen pintxo baten lau ale prestatu beharko ditu Aldabide elkartearen, 11:30etik aurrera. Lehiaketari buruzko argibide guztiak [www.arbizu.eus](http://www.arbizu.eus) web orrian daude.

## Parlamentuari gonbidapena

Iñigo Aritza ikastolako ordezkaria Nafarroako Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarez lgartzarekin elkartu zen pasa den ostegunean. Nafarroa Oinezeko antolatzaileen eskutik herrialdeko ikastolen festara etortzeko gonbidapena jaso zuen Aznarezek. 38. Nafarroa Oinezeko prestakuntza lanen nondik norakoak azaldu zizkioten ere.



NAFARROAKO PARLAMENTUA

## Extremadurako kultur jarduerak asteburuan

Aurkezpenean Altsasurekin senidetuta dagoen Piedras Albasko alkateak hitz eginen du

### ALTSASU

La Encina Extremadurako kultur elkarteak kultur jardunaldiak antolatu ditu astebururako. Iortia kultur guneko areto txikian eginen dute haien aurkezpena gaur, 19:00etan. Ekitaldi horrek bi gonbidatu berezi izanen ditu. Piedras Albasko alkate Victor Manuel Garcia Vega eta Julia Hernandez Valles, Euskadiko Arartekoaren ondokoa. azken horrek pregoia irakurriko du. Gaurko ekitaldiaren ondoren, astebururako iragarritako elkarte kideen eta hara hurbiltzen diren guztien arteko erlazioa sendotzeko balioko dute.

## OSTIRALA 28

**17:30** Argazki erakusketa, El Recuerdo, Iortia kultur guneko gela txikian.

**19:00** Kultur jardueren aurkezpena, Victor Manuel Garciaen parte hartzearekin. Ondoren, Julia Hernandez Vallesen pregoia. Bukatzeko, ohorezko damei ohorezko banda jarriko zaie. **20:30** Auzatea, Extremadurako produktuekin.

## LARUNBATA 29

**12:30** Auzatea. **14:30** Herri bazkaria. **20:00** Entre Aguas koadro flamenkoa, Iortia kultur gunean.

## DOMEKA 30

**10:00** Futbol partida, helduen eta gazteen arteko neurketa. **11:00** Gastronomía lehiaketa: Nafarroa-Extremadurako ohiko jakiak. **12:30** Lehiaketara aurkeztutako jakiekin auzatea. **14:30** Herri bazkaria, alubi-jana. Ondoren, poker, futbol partida eta gastronomía lehiaketetako sari banaketa.



Ikastaroko parte-hartzaileak. NAF GOB

## Kirola hezkuntza eta inklusio tresna gisa lantzeko

Gai horri buruzko nazioarteko ikastaroa egiten ari dira Otadiko Kristo Deuna aterpean

### ALTSASU

Gazteria sailletako eta hezkuntza ez formaleko 25 pertsona parte hartzen ari dira ikastaroan. Europako 14 herrialdeetatik etorri ziren astehenean eta gaur arte Altsasun izanen dira. Kirolak gizartean duen garrantziaz jabetuta, hezkuntza ez formalean gazteen inklusiorako tresna garrantzitsua izan daiteke. Kirolaren hezkuntza jarduerak eta praktikek zenbait baliore bultzada positiboa ematen diete, esaterako, elkartasunari, kolaborazioari, errespetuari eta aniztasunaren babesari. Aldi berean, gizarteko taldeen arteko zubiak eratzen ditu, elkarrizketa eta elkar ulertzea erraztuz. Ikastaroaren metodologia aktiboa eta parte-hartzailea da.

Europako Batzordearen Erasmus+Gazteria programaren bidez finantzatuta dago eta Nafarroako Gazteria eta Kirol Institutuak kudeatu du ikastaroa. Horregatik, parte-hartzaileek Ruben Goñiren bisita hartu zuten asteartean. Foru administrazioaren laguntzaz aparte, Kirol Egokituko Federazioak eta Gurutze Gorriak inklusio-kiroleko ariketak egiteko materiala utzi dute. Gainera, Nafarroan egindako praktika onen berri emanen diete ere.



Urbasako kanpineko makina. NAFAR GOB

## Urbasako kanpinean ontziak jasotzen

Urbasako eta Aritzalekuko kanpinetako makinek 1.200 kilo hondakin jaso dituzte, 65.000 ontzi

### SAKANA

Urbasako eta Aritzalekuko kanpinetako plastikozko ontziak eta latak jasotzeko makina bana daude. Nafarroako Gobernuak Hondakinen Prebentzioa eta Zirkulu-Ekonomia Bultzatzeko Bulegoak jarri zituen makina horiek garilaren 5ean, eta lastail akaberara arte martxan izanen dira.

Plastiko ontziak edo latak erabili ondoren, makinan sartu eta hark jaso, trinkotu eta biltegitratzen du. Gehienez ere PET-ez egindako 3 litro arteko ontziak hartzen ditu. Ontzia makinan sartzen duen pertsonak kanpinetan trukatzeko deskontu txartelak jasotzen ditu. Ontzi bakoitzeko 10 zentimoko txartel bana jasotzen da. Halako sistema Finlandian eta Alemanian indarrean dago. Eta horren berri emateko kanpaina egin zen Altsasun eta Etxarrin, garilaren 4an eta 5ean. Halako esperientzi osagarriak egitea jaso dago 2017-2027 Nafarroako Hondakinen Planean. Baita halako esperientzien bideragarritasuna azterketa egitea ere. Jasotako ontziak Azkoiengo tratamendu plantan materialen arabera banatuko dituzte, bildu eta Ecoembesen zirkuituaren barruko birziklatze plantara eramanez dute.

## Parte-hartze aurrekontuak gauzaten

Irurtzango Udalaren zortzigarren parte-hartze aurrekontuek 35.000 euroko poltsa dute. Irurtzundarrekin diru hori igerilekuko berdeguneak eta sarrerako arranja hobetzera bideratzea erabaki zuten. Lorezainak aholkatuta, igerileku sasoia despeditu ondoren hasi dira hango berdegunea hobetzeko lanak. Lurra landu, belarra erein eta urreztatze sistema jartzeko lanek 13.200 euroko aurrekontua dute. Arranpa egokitzeak hartuko du beste zati bat.

Ez da lehen aldian irurtzundarrekin parte-hartze aurrekontuetako dirua igerilekura bideratzen dutena: 2013an hango azpiegiturak berriro zituen udalak.

## Kanpina kudeatzeko deialdia hutsik gelditu da

Etxarri Aranazko Udalak Danbolintxulo dermian dauden kanpina eta igerilekua alokairuan emateko deialdia egin zuen garilaren erdialdean. Orain arte kudeatu duten Florenek eta Montsek jubilatuta eta utzi eginen dute. Udalak, heldu den urtean hasita, 20 urterako eman nahi zuen azpiegituraren alokairua. Baina udaletik jakinarazi dutenez, kanpina eta igerilekua kudeatzeko lehiaketa publikoa hutsik gelditu da. Etxarri Aranazko Udalaren asmoa da aurki beste deialdi bat egitea. Hala ere, udaletik interesa dutenei adierazi diete informazioa eskatzeko udala@etxarriaranatz.eus e-postara jo dezaketela.



Garalurren diru-laguntzarekin lanak eginen dira Ihabarko kontzeju-etxea. ARTXIBOA

## Europako diru-laguntzak eskatzeko deialdia eginda

Tokiko erakunde publikoek, enpresek, kooperatibek, fundazioek, elkarteek eta partzuergoek eska ditzakete

SAKANA

Cederna-Garalurrek jakinarazi duenez, Landa Garapenerako Programaren barruko 2014-2020 Tokiko Garapen Parte-hartzaileko Estrategiara proiektuak aurkezteko deialdi berria zabalik da. Tokiko garapena sustatuko duten proiektuak laguntzeko diru-laguntza horiek 1,08 milioi euroko diru-poltsa banatuko dute. Europako Feader funtsetik eta Nafarroako Gobernutik heldu da dirua.

Diru-laguntza deialdi horretara aurkezten diren proposamenek aipatu estrategian identifikatutako ardatzekin bat egin beharko dute; hauetakoak: hauek: herrietarrek tokian mantendu eta finkatu; lehen sektorea eta basogintza; natura-baliabideak; zerbitzuak garatu eta ondareari balioa eman eta enpresek finkatzen eta enplegua sortzen lagundu.

Erakunde publikoek eta pribatuek aurkeztu ditzakete laguntza eskaerak deialdi horretara. Ekoizpen proiektu bat bada, hau da, zuzeneko ekonomia mozkinak ekarri edo lanpostu berriak sortzen baditu, %30 finantzatu da. Nafarroako Mendialdeko zerbitzu publikoak eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko lehentasuna duten proiektuei, ekoizpenekoak ez diren proiektuei, % 70eko diru-laguntza emanen zaie.

Interesa duten erakundeek azaroaren 19ra arte aurkez ditzakete euren eskariak. Argibide gehiago nahi dituenak 669 704 506 edo eelso@cederna.es jo dezake (Eduarne Elso). www.cederna.eu web orrian ere izanen ditu. 2014-2020 Landa Garapenerako Programa martxan jartzeko Garalurrek Gobernuarekin hitzarmena sinatu zuen 2016an. Ordutik 3. deialdia da hau.



Lanak hasi aurreko Inasako argazkia.

## Gobernuaren superabitarekin bost lan eginen dira

Hezkuntza arloko hiru lan eta Osasuna eta Ekonomia Garapen Departamentuetako bana dira

SAKANA

Finantza arlotik jasagarriak diren inbertsioen plana aurkeztu zuten Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek Nafarroako Parlamentuan ostegun arratsaldean. 113 milioiko inbertsioak egitea aurreikusten du foru gobernuari eusten dion laukoak. Nafarroako Gobernuaren kontuek superabita izan zuten joan den urtean. Baina Espainiako Aurrekontu Egonkortasun Legeagatik ezin izan zituzten erabili. Gobernuaren kontuen kudeaketa egokiak lortu du inbertsioak egiteko aukera. Laukoaren asmoa da inbertsio plana Parlamentuak lastailaren 4ean onartzea. Baina horretarako Espainiako Gobernuaren oniritzia beharko du, gastu-araua betetzen duela.

Laukoak onartutako planean, Toki Azpiegitura Planak finantzatzeko 20 milioi euro daude. Horien bidez, Sakanako udalek

lanen bat egiteko aukera izan dezakete. Hala balitz, udalek lanak abenduaren 31 baino lehen eman beharko lituzkete. Gai nontzeko 93 milioiak planak zerrendatu dituen inbertsioetara bideratuko dira. Tartean Sakanako bost daude. Alde batetik, Osasun Departamentuak Etxarri Aranazko osasun etxe galdara aldatzeko 22.000 euro bideratuko ditu.

Bestetik, Hezkuntza Departamentuaren hiru lan aurreikusitako dira Sakanan: Arbizuko eskola publiko berria (3.402.675 euro), Altsasun dagoen Sakana Lanbide Heziketa institutua zaharberritzea (50.000 euro) eta Altsasu institutuan kirol pista (55.000 euro). Azkenik, Ekonomia Garapenerako Departamentuak Irurtzunen eta Lodosan industriarako zorua egokitzeko hasitako lanek segituko dute (5.000.000 euro).

## Webgune propioekin Internetera salto egin dute bi udalek

Sakanako Mankomunitateaz aparte, dagoeneko dozena bat udalerrri dira sarean atari propioa dutenak

SAKANA

Internet sarean webgunea mustu dute Iturmendiko eta Urdiaingo udalek. Hilaren 14tik erabilgarri dago www.iturmendi.eus web orria. San Pedro festetarako prest zegoena, berri,

www.urdiaian.eus ataria zen. Herritarrei zerbitzu publikoak gerturatu eta albisteak zabaltzeko modua izateaz aparte, bisitariak herriaren berri jasotzeko modua ere bada udalek mustu duten baliabidea.

Sakanak dituen 15 udaletatik dagoeneko 12k dute web orria: Arakil, Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutia. Interneteko sarbide zuzena dute Beraz, hiru herrietako udalak dira pauso hori eman ez dutenak: Irañeta, Bakaiku eta Ziordia. Ibarreko tokiko beste erakunde batek ere badu bere tokia Internet sarean, Sakanako Mankomunitateak. www.sakana-mank.eus bidez ematen du zerbitzua.



Webgune berrien hasiera orriak.



**948 460 037 Arbizu**  
**948 468 441 Altsasu**

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika**  
**Elektrizitatea**  
**Txapa**  
**Margotzea**

# "Tindufeko eremuetako egoera ez da ona"

**SIDAHMEDAT MOHAMED LAMIN SAHARAKO ILARGIERDI GORRIKO GARRAIO ZUZENDARIA** Rabouniko garraio baseko zuzendaria Izurdiagako Brun forjan izan da, Eduardok joan den urtean egindako bisita bueltatzeko eta haren hurrengo bidaiaria prestatzeko

**Alfredo Alvaro Igoa** IZURDIAGA Marokoren okupazio militarren ondoren Aljeriako hego mendebaldeko desertuan opatu zuten "babesa" Saharako herriak.

Tindufeko errefuxiatu eremuak basamortu gorrian daude. Rabouniko garraio basea egiteko ideia 2005ean sortu zen. Helburua: Saharako Ilargierdi Gorriak

Tindufeko errefuxiatu eremuan elikagaiak banatzeko ibilgailuak etengabe eskura izatea. Urteekin garraio basea garatuz joan da eta errefuxiatu sahararren oinarrizko premiei erantzuna emateko logistika zentro bilakatu da.

Eduardo Brun Saharako errefuxiatu eremuko basean izan zen 2017an. Mugarik Gabeko Langile eta Teknikarien Elkarte-kideekin batera joan zen. Soldadura ikastaroa eman zuen. Azaro akaberan atzera ere bide bera hartuko du Brunek. Bi asterako izanen da. Baina hara joan aurretik, Sidahmedat bisitan etorri zitzaion ostiralean.

**Eduardori bisita bueltatu diozu.**

Bai. Esker ona bueltatzea. Eta nola lan egiten duten eta zer egiten duten ezagutzeko. Haien esperientziaren berri izan gurrera estrapolatzeko.

**Zer egin zuen Eduardok han?**

Lan ona egin zuten. Basearen funtzionamenduari buruzko ebaluazioa egitera joan ziren. Bereziki kamioiei erreparatu zieten. Ebaluazio ezin hobea izan zen. Bisita guztiak ongi etorriak dira eta garrantzitsuak dira. Gu laguntzeko modu bat dira, kudeaketa hobetzen laguntzeko modua dira.

**Baseak ongi funtzionatzeak apar-teko garrantzia izanen du, ezta?**

Basea garrantzitsua da. Bere bidez banatzen zaio saharar populazio errefuxiatuari oinarriz-



Eduardo Brun (ezkerrean), ATTSFko kideak eta Sidahmedat. UTZITAKOIA

ko zarea, produktu freskoak eta bestelako tresnak.

**Zein da gaur egun basean duzuen premiarik handiena?**

Kamioiak berritzea. Eta prestakuntza: elektronika, soldadura, gidariendako trebakuntza eta... **Prestakuntza premiengatik bueltatuko dira Brun-eta, ezta?**

Bai, aurki joanen dira eta egin ahal duten guztia egiten jarriko ditugu. Haietaz baliatu behar dugu. Prestakuntza teorikoa eta praktikoa jaso nahi dugu. Esaterako, kamioien gurtoholen altuera handitu nahi dugu, karga gehiago eramateko. Bestetik, gas-botila asko hartzen dituzten ontziak batetik bestera eramateko kamioien atoiak egokituko dira.

**Zein da errefuxiatu eremuko egoera gaur egun?**

Ez da egoera onena. Elikadurarako laguntzan murrizketa izan da. Gainera, berriki euriteak izan dira eta saharar errefuxiatuei nahikoa kalte egin die. Ez da unerik gozoena. Horregatik eskatzen diegu pertsona solidario guztiei gu laguntzeko.

**Bitartean, zertan da autodeterminazio erreferendum?**

Su-eten hitzarmena dago (Marokorekin). 1991tik bake plana dago. Baina Marokok nazioartean deiei entzungor egin die beti. Ez du ezer jakin nahi. Guk han segitzen dugu, erne eta tinko! 45 urte daramatzagu han eta gure egoerari konponbiderik ematen ez bazaio, askozaz urte gehiago pasako ditugu.

**Bitartean diplomazia-garaipenak izan dituzue.**

Nazioartean gure kausa unerik gozoenean dago. Maroko inguratzen ari gara. Nazioarteko

erakunde eta Estatu askok amore ematera behartzen ari dira, negoziazioetara joan dadila.

**Diplomazia-garaipen horiek nola hartzen dituzue Tindufen?**

Oso ongi. Jendea pozik dago. Jendea bere ekarpena egiten ari da. Egunitik egunera bere lana hobeki egiten du. Egunero hobetzeko tema dute.

**Marokon lehen soilik saharrek protestatzen zuten. Rif, hiriak...**

Hedabide askerik ez dago. Marokon arazo handiak daude. Rif, egunero marokoar asko Mediterraneo itsasora botatzen dira... Marokok barne arazo ugari ditu.

**Marokok okupatutako lurraldeetan zer moduzko egoera dago?**

Kartzela bat da. Okupatu zuten zergoztik. Han dauden saharrek ezin dute kalera atera eta modu baketsuan autodeterminazioa eskatzeko manifestazioa egin. Guztiz debekatuta dute "gure autodeterminazioa eskatzen dugu". Segurtasun indar kopuru handia dago. Kale guztietan daude. Guztiz militarizatutako gunea da.

**Eta han dagoen Nazio Batuen Erakundearen misioa, zer?**

Badirudi haien egiteko nagusia zein den ez dakitela. Giza eskubideak zaintzea da eginkizun hori. Euren kuarteletan daude eta ez dute inolako zaintzarik egiten. Eta sahararrak egunero zigortuak dira.

**Zer esanen zenieke gure irakurleei?**

Sahararren kausa gertutik segitzeko eta haren alde egin dezaketenguzti ongi etorria da. Laguntza handia behar dugu. Gurea kausa justua da. 45 urte daramatzagu hamadan, basamortuko tokirik okerrean.

## EUSKARAZ EGITEN DEN KIROLA ASKOZ ERE GEHIAGO DA

Asko dira kirola egitearen onurak: osasuntsua da, hanbat balio (laguntasuna, berdintasuna, inklusioa, errespetua, joko garbia e. a.) lantzeko balio du, eta, horretaz gain, bada modu bat hizkuntza bat ikasteko.

Izan ere, hizkuntzak ez dira bakarrik ikastetxean ikasten. Arago, hauek denbora gehiago pasatzen dute gelatik kanpo gela barruan baino. Hortaz, eskolaz kanpoko jarduerak oso garrantzitsuak dira euskararen ikasketaren prozesua burutzeko.

Esate baterako, kirol jardueretan komunikazioa oso garrantzitsua da taldean egiten direlako, beraz, primerakoak dira euskara ikasteko, modu atsegin batean ikasten baita hizkuntza. Eta horrek haur zein helduendako balio du.

Gainera, kirol jardueretan euskaraz aritzen direnek ikasgelan lantzen ez den hizkera lantzen dute: hizkera informala.

Garbi dago, hautatu euskara kirolean entrenatzailea bazara edo gurasoa bazara. Euskaraz egiten den kirola askoz ere gehiago da.





## Lan-istripuak salatzeke mobilizazioak gaur eta bihar

Nafarroan bi hilabeteen 11 hildako izan dira. Egoera larria bideratzeko borondate politiko eske

### SAKANA

ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU eta CGT sindikatuek lan-istripuen igoeraren aurrean kezkatuta, lantokietan salaketa eguna antolatu dute gaurko. Gainera, bihar, Iruñeko autobus geltoki zaharretik 18:30ean abiatuko den manifestazioan parte hartzea deitu dute. Ekimenek *prekariatatea = arrisku mortala. Gure osasunaren eta bizitzaren defentsan* leloa dute.

Sindikatuak azaldu dutenez, "lan-ezbeharrak ekonomia-jarduera eta langile kopurua baino gehiago hazten ari dira. Azken hamarkadan ehundik gora heriotza eragin dute lan istripuek". Zazpikoteak gaztigatu duenez, lan-istripu ugari estatistika ofizialetik kanpo gelditzen dira: autonomoenak, garraiolarienak eta lantokirako bidean direnak. Lan-gaixotasunek eragindakoak ere ugariak direla nabarmendu nahi izan dute.

Ekimen horiekin sindikatuek enplegu duina eta kalitatezkoa eskatuko dute, "prekariatatea eta enpleguaren kalitate eskasa daude istripuen oinarrian". Aldi berean, "lan-osasun politikak errotik aldatzea" nahi dute, egungoak "eraginkorrak ez direla frogatu" delako. Lan-osasunera bideratutako ekonomia-baliabideak handitu eta horiek politika errealetera eramatea eskatu dute. Horrekin batera, sindikatuek enpresen gaineko kontrola handitzea eskatu dute. "Lan-istripu gehienak harrapaketa edo erorketen ondorioz gertatzen dira Jarduera arriskutsuen jarraipena egiteko lanikuskaritzaren eskumena Nafarroara eskualdatzea" exijitu dute. Arlo horretako giza-baliabideak Europako pare izatea eskatu dute ere. Azkenik, lan-gaixotasunendako Nafarroako babes-sozialerako esparru propioa garatzea nahi dute.

# Pentsio duinak Iruñean ozen aldarrikatzera

LUIS IGELTZ SASOIA, NAFARROAKO PENTSIODUNEN ELKARTEKO KIDEA

Pentsiodunen mugimenduek sakandarrak mobilizatzen deitu dituzte astelehenean, 12:00etan, Iruñean pentsio duinen alde

### SAKANA

Adinekoen Nazioarteko Eguna da lastailaren 1a. Astelehenean pentsio duinen aldeko aldarrikapenak kalera aterako dituzte. Horrekin batera, Gizarte Zerbitzuak hobetzea eta mendekotasunei aurre egiteko politika egokiagoak eskatuko dituzte. "Gizarte osoari" mobilizazioetan parte hartzeke deia egin diote. Azken batean, bizi baldintza duinak eskatuko dituzte. Eta beste behin aldarrikatuko dute aberastasuna egon badagoela eta hura egoki erabili behar dela. Horregatik, guztiatik sakandarrak astelehenean aldarrikapenekin bat egitera deitu dituzte. Aldarrikapen horiek aste honetan bertan ibarreko kaleetan zabaldu dituzte ere: astelehenean Etxarri Aranazko azokan eta Altsasuko Zumalakarregi plazan eta, asteartean, berriz, Irurtzungo azokan.

Iruñean bi manifestazio izanen dira astelehenean 12:00etan. Bata, Hego Euskal Herriko plataformen eta mugimenduen koordinadorak deitutakoa da eta Gaztelu plaza du abiapuntua. Bestea, Nafarroako Pentsionistak Martxanek deitzen du eta udaletxe plazatik abiatuko da.

**Zergatik deitu dituzue asteleheneko manifestazioak?**



Autobusa astelehenean 10:30tan aterako da autobus geltokitik.

Aurreko urteetan ere egiten genituen manifestazioak. Baina helburu bakarra adinekoen eguna zela izaten zen. Aurten eguna kontzentrazioak egiteko aitzakia bat besterik ez da: atzetik dakargun borroka gaur egunera ekartzeko aukera aprobetxatu nahi dugu. Egin ditugun aldarrikapen horiei guztiei indar gehiago eman nahi diegu. Herrialde guztietan pentsionisten egoera azaldu eta gure erantzuna oso handia dela agertu nahi dugu. Ez gaudela baztertuta. Ez garelako gure egoeraz ahaztu. Gure

borrokan tinko gaudela erakutsi nahi dugu.

**Hau irakurtzen ari denak zergatik joan beharko luke manifestaziora?**

Adinekoen eguna dela kontutan izan eta erantzun bat emateko. Baina Iruñeko manifestazioetara joan behar da, batez ere, gure eskubideak aldarrikatzera. Pentsionisten eskubideak eta pentsionisten beharrak aldarrikatzera. Alde guztietatik emandako gure erantzunarekin guber-nuei eta politikariei haien jarrerara aldarazteko asmoarekin joan behar dute.

**Zein dira dituzuen aldarrikapen horiek?**

Lehenik, sistema publikoa bermatzea eta blindatzea nahi dugu. Bestetik, Kontsumo Prezio Indize errealearen arabera igoera legez bermatzea, momentuan ematea, ez pasatutakoan. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desoreka, irabazten eta jasotzen duten pentsioen arteko aldea, apurtzea. Gainera, gaur egun oso ongi onartua dagoen 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ere aldarrikatzen dugu. Bestetik, alde aurretik jubilatzen direnak zigortuak ez izatea nahi dugu. Eta, bukatzeke ez dugu ontzat ematen Pentsio Sistema Publikoa deuseztatzea eta horren ordez Estatuak laguntza sistema edo karitatezko zerbitzu baten modukoa jartzea, behartsuendako moduko zerbait jartzea jendearen gutxieneko behar horiek betetzeko. Hori ez dugu onartuko.

**Eskubideak!**

Bai. Eskubideak defendatzen ditugu. Eskubide horiekin guk nahi duguna bizi duin bat lortzeko eta bizitzeko aukera izatea da. Hori ez dugu lortuko gure eskubideak eta gure pentsioak ez badira oinarri-oinarritik eta legez behar bezala bermatzen.

**Zer espero duzue astelehenean gertatzea?**

Pixkanaka Sakanan egiten ari garen lanari esker nik uste dut adineko jendearen buruetan zabaltzen ari dela jubilatutok mugitu beharra dugula. Lana, borrokatu behar dugula eta ka-lean ikusi behar gaituztela. Uste dut erantzun ona emanen dutela. Autobusa prestatu da eta jendeak autotan ere joateko aukera izanen du. Hemendik Iruñera jende pila bat joanen dela uste dut.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta**

Astelehenean ostiralera  
**Eguneko menua  
9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

**sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**

948 576 357

Ogiaren artisauak

**PORTUKO** okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

# NON ERABILI?



## PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

## CLINKER

OLAZTI

Menu bereziarekin txupittoa doan.

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsultan.

## GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketan %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

## TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

## SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

## IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

## BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Kartan menuan, kopa doan.

## BEA ESTETIKA

IRURTZUN

% 10eko deskontua, gorputzeko eta aurpegiko tratamentuetan.



Patxi hobiaren ondoan. ETXARRIKO UDALA

## Lizarrustin fusilatua opatzen lagundu zuen gizona hil egin da

Patxi Lakuntza Larraza Urretxun hil zen ostiralean, 87 urte zituela. Quifosako etxean bizi zen eta inguruan Olaberriako gazte bat nola fusilatzen zuten ikusi zuen 6 urte zituela. Bere lekukotza ezinbestekoa izan zen hildakoa- ren gorpuzkiak berreskuratzeko. Irailaren 2an izan zen hori. Patal egonda ere hobi hura ikusterera joan zen bere eta gaztearen familiekin hilaren 16an.



Bidea asfaltatu berri. ETXARRIKO UDALA

## Etxarriko Udalak Zumurdiñetako bidea konpondu du

Amaiturrietako iturburuko urak jasotzen dituen biltegiarako, Kontzezio ermitarako eta hainbat abeltzain ustiapenerako bidea da Zumurdiñetako. Pasiatzeko eta mendira joateko ere erabiltzen da. Autobia azpiko zubira arte oso gaizki zeuden 1.260 metro eta udalak 36.299,34 euroko inbertsioa egin du konpontzeko, erdia Nafarroako Gobernuak pagatuko du.



Sustrai-Erakuntza fundazioko kideak TPS proiektu berria aurkezten. UTZITAKOIA

## Tren Publiko eta Sozialaren proposamena eguneratu dute

Herritarren ekarpenekin berritu dute. Bestalde, AHTren kontrako biharko deialdiarekin bat egitera deitu dute

SAKANA

Sustrai Erakuntza fundazioa duela urte bat Tren Publiko eta Sozialerako (TPS) bere proposamena aurkeztu zuen. Fundazioko kide Martin Zelaiak azaldu digunez, "helburua zen nafar denondako eta denetarako tren bat diseinatzea, parte-hartze prozesu ireki baten bidez". Horretarako, herrialdean barnako aurkezpen bira egin zuten, "eztabaidan oinarritutako prozesu" haren ondoren berritu dute TPS proiektua.

Zelaiari galdetuta, azaldu digu Sakanari dagokionez, "zenbait datu tekniko kenduta, proiektuak ez du aldaketa handirik izan". Fundaziotik egun dagoen trenbidea bikoiztea proposatzen du, trenbide berria dagoenaren paralelo egitea. Eta, horretarako, dagoeneko espazioa utzia dagoela gogorarazi dute. Estuagoa den Europako trenbide zabalera egokitzeke 3. erraila jartzea proposatzen dute gainera, hango eta hemengo trenak arazorik gabe erabiltzeko, bidaiariak eta merkantzien garraiokoak. Trenbidea hesituta legoke. Egungo ibilbidean aldaketa puntual bat egiteko aukera ez dute baztertzen: Izurdiagan. Trenbidea herri erditik pasatzen da eta gero bihurtzen handia dago. Tunel berri bat egiteko aukera ez lukete baztertuko.

Azpiegitura hori izanda aldirietako tren zerbitzua aldarrikatu dute fundaziotik. Proposamen berrian geltokiei aparte garrantzia eman diete. "Tre-

kita egon behar dute, landaguneak hiriburutik gero eta hurbilago egoteko". Zelaiak gogorarazi du Lakuntza eta Baikaikuko geltokiak deskatalogatuta daudela eta zerbitzua eman ahal izateko erabaki horretan atzera egin beharko litzatekeela. Fundazioko kideak gogorazi duenez, "AHT egiten balitz, Altsasuko geltokian ibilbide luzeko trenak gelditzeari utziko lioke. Hori galduko litzateke". Aurreratu duenez, AHTren kontra eta TPSren alde zerbait egin nahi lukete udaberriaren.

### Lanetara martxa

AHTren Nafarroako korridoreko lanei Azkoien eta Erriberri artean berrekin diete udan (10 km, 30 milioi euro). 5 km-ko beste zati bateko lanak ere eman dituzte (55 milioi euro) eta beste 15 km-ko beste zati baten deialdia egin da. Egindakoari horiek gehituz gero, foru korridoreko ibilbidearen erdia legoke egina. Tren azkarraren proiektua salatzen AHTren kontra dauden Nafarroako hainbat taldek deialdia egin dute: bihar, 11:00etan, Marcilla ondotik AHTko lanetara martxa. Deialdiarekin bat egin duen taldeetako bat Sakana Trenaren Alde da. Mobilizaziora joateko autobusa antolatuko du. 08:30ean Altsasuko geltokitik abiatuko da eta Etxarri Aranatzko (08:40), Lakuntzako (08:45) eta Irurtzongo (09:00) autobus geltokietan jendea jasoko du. Oraindik tokia badago. Buelta 13:00etan egiten dute.

## Nekazaritza ibilgailuak azterketa pasatzera

Ibarreko nekazaritza Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) pasako dute hurrengo hiru asteetan. 750 bat ibilgailu dira. Azterketa egiten duten teknikariek ibilgailu horien segurtasun egoera aztertzen dute, errepidean ongi ibiltzen direla eta arazorik ez dutela. Bere herrian azterketa pasa ezin duenak, beste batera joan daitezke.



Intxostiapuntak egitarau oparoa dakar denboraldi berrirako. ARTXIBOA

## IAT azterketen egutegia

Herria	Hilabetea
Irurtzun	Lastailak 1
Ihabar	Lastailak 2
Uharte Arakil	Lastailak 3
Uharte Arakil	Lastailak 4
Uharte Arakil	Lastailak 5
Arbizu	Lastailak 8
Unanu	Lastailak 9
Etxarri Aranzatz	Lastailak 10
Lizarraga	Lastailak 11
Iturmendi	Lastailak 15
Iturmendi	Lastailak 16
Altsasu	Lastailak 17
Olatzagutia	Lastailak 18
Ziordia	Lastailak 19

## Ederbidea bizikleta bidearen tramitazioak aurrera segitzen du

Ederbidea proiektua Doneztebe eta Irurtzun bizikleta bide batekin lotuko ditu. Zehazki Bida-soako eta Plazaolako bide berdeak lotuko ditu. Nafarroako Gobernuak Udalez gairikiko Eragineko Proiektu Sektoriala (UGEPS) onartu zuen eta jendaurreko epearen ondoren ez da alegaziorik izan. Nafarroako Aldizkari Ofizialak proiektuaren araudia argitaratu zuen atzo.

Proiektu horrek Iruñea, Donostia eta Baiona lotzeko baliagarria izanen da. Europa guztia zeharkatzen duen Eurovelo ibilbide sarearen zati izanen da. Etorkizunean Sakana zeharkatuko duen Donejakue bidearekin bat egiten du.

## Gaztetxokoaren denboraldi berrian egitasmo berriak

Gazte-agenda bihar abiatuko du. Gaztetxokoaren eta ikastetxeen arteko berriemaileen sarea sortuko da

### ALTSASU

Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak jakinarazi duenez, Intxostiapunta gaztetxokoaren denboraldi berria bihar hasiko da, 18:00etan, gynkana erraldoi batekin. Domekan, berriz, ate irekien jardunaldia egingen dute 18:00etatik aurrera. Gainera, karaokea eta dantza izanen dira. Udazkeneko ikastaro eskaintza ere prest dute Intxostiapuntan: zurrumurruak, aero-dantz, munduko sukaldaritza eta lanerako gaitasun pertsonalak.

Bestalde, gaztetxokoak, denboraldi berrian ordutegia mus-tuko du: astelehenetik ostegunera, domeketan eta jai egunetan 17:00etatik 21:00etara, ostiralean eta larunbatetan 17:00etik 22:00etara eta ekintza berezien egunetan 17:00etatik 01:00etara (aurrena lastailaren 6an).

### Gazte-berriemaileak

Hori da denboraldiko berritasun nagusia. DBH 4, Batxilergoa edo baliokidea den ikasketaren batean matrikulatuta dagoen edozein izan daiteke gazte-berriemaile. Bi hizkuntza eredu dauden ikastetxeetan D ereduko ikaslea izan beharko du. Intxostiapunta gazte-gunearekin lan-kidetzan aritzeko konpromisoa hartuko luke eta lagun eta ikas-kideei gaztetxokoan antolatutako jardueren berri emanen lieke. Neska-mutuez osatutako talde mistotan lan egingen dute. Interesatuak telefono mugikorrean whatsapp aplikazioa instalatuta izan beharko dute.

Gazte-berriemaile izatea erabakitzen duten neska-mutulen eginkizunak honakoak dira, alde batetik, gazte-gunearekin etengabeko harremana izatea (e-posta, sare-sozialak...) informazioa jaso eta inguruko gazteei jakinarazteko, edo alderantziz. Horretarako, kartelak, bestelako euskarriak eta sare-sozialak lituzkete. Bestetik, informazio hori ikastetxeetako gazte informaziozako paneletan jarri beharko dute eta ikaskideen kontsultak gutxienez astean behin erantzun beharko dituzte. Azken hori bi berriemaileen artean egingen da. Gainera, informazioa osatzeko, gaztetxoko begiraleekin edo gazteria teknikarierekin bildu beharko lukete. Azkenik, hilabeteko jarduna biltzen duen fitxa eta akaberako memoria egin beharko ditu.

Berriemaile horiek gainontzeko gazteen artean zabaldu beharreko informazioa honakoa da: Intxostiapuntako gazte agenda, ikastaroak, Sexgune zerbitzua, aretoen mailegua, txartelak, txangoak, telefono interesgarriak, iradokizunak, proposamenak... Sare sozialen eta ikastetxeetako gazte informaziozako panelean zabalduko dute informazioa. Beti-ere, gazte-berriemaileek irakasleen, ikastetxeko zuzendaritza taldearen, begiraleen edo gazte-guneko teknikariaren laguntza izanen dute.

### Eskaera egin

Gazte-berriemaile izan nahi dutenek Intxostiapunta gazte-gu-

nean proposamena aurkeztu beharko dute. Datu pertsonalak emateaz aparte (izen-abizenak, adina, telefonoa, ikasturtea, ikastetxea) proiektuaren justifikazioa egin beharko dute. Hau da, gazte berriemaileen programa zergatik iruditzen zaien interesgarria argudiatu beharko dute, bai eta zer onura ekarriko dizkien beraien lagunei, ikaskideei, zuri, eta abar.

Aldi berean, hautagaiak adierazi beharko du zer helburu zehatz lortu nahi duen bere ikastetxeko informazio-gunearen bidez. Eta gaineratu beharko du helburu horiek lortzeko zer egingen lukeen eta nola egingen lukeen. Bestalde, hautagaiari eskatzen zaio azaltzea nola antolatuko lituzkeen ordutegiak, gazte-gunearekiko harremana, ikaskideekikoa, jendearekikoa

eta abar. Horiekin batera, ikasturtean zehar egitekoa baloratze modua zehaztea ere eskatzen zaie hautagaiei. Horiek guztiak eta gehitu nahi dituztenak jasoak egon beharko dute gazte-berriemaile izan nahi dutenen proposamenetan.

Behin gazte-berriemaileak direla, zeregin ugari izanen dute aurretik. Egiteko horiek lana direla aitortuta, berriemaile eginkizunak betetzen dituztenek 200 euroko saria jasoko dute (80 abenduan eta 120 programa bukatzean) eta hilean behin Intxostiapuntan antolatutako ekintza batean doan parte hartzeko aukera izanen dute. Horretarako, jakina, eginkizunak egoki bete beharko dituzte.

Argibide gehiago nahi dituenak: 948 564 785 telefonoan edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) e-postan.

# #emanlikeeuskarari

**Matrikula zaituz euskaltegian**

2018/2019 IKASTURTEA  
DIRU-LAGUNTZAK MATRIKULATZEKO  
948 012 012  
[www.euskarakasi.nafarroa.eus](http://www.euskarakasi.nafarroa.eus)

**ANTOLATZAILEAK**  
Euskarabidea eta toki entitateak:  
Aizoa, Aiz / Agoltz, Ansoñin / Ansoñin, Aranguren, Auritz / Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano / Berribeiti, Berriozor, Burlada / Burlada, Cendea de Oiza / Oitza Zendea, Erro, Estella-Lizarra, Esteribar, Etxauri, Galar, Huarte / Uhartea, Imotz, Lizasoain-Arriaga, Luzaide / Valcarlos, Mancomunidad de Irantzu / Irantzuko Mancomunitatea, Mancomunidad de Valcarlos / Ibarberriko Mancomunitatea, Odieta, Orreaga, Pamplona / Iruña, Puente la Reina / Gares, Sakana Mancomunitatea / Mancomunidad de Sakana, Salazar / Zaraitzu, Tafalla, Ultzama, Valle de Arce / Artzibar, Valle de Egüés / Eguesbar, Valle de Roncal / Erronkaribar, Villava / Atarrabia, Zizur Mayor / Zizur Nagusia.

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra euskarabidea

**LAGUNTZAILEAK**  
Nafarroako euskaltegiak

NAFARROAKO HIZKUNTZA ENSEÑANZAK OFIZIALEK ESCUELAS OFICIALES DE IDIOMAS DE NAVARRA



Larunbatean izanen da San Migel eguna aurten. ARTXIBOA

## Aralarko santutegian jendetza espero da bihar

San Migel eguna da eta larunbata denez, jende asko espero dute. Bost meza izanen dira

### SAKANA

Aurten San Migel eguna larunbatarekin egokitu da. Egun horrek berez jendetza erakartzen du Aralarko santutegira. Baina jai eguna izanik, bihar Aralarren makina bat fededun eta sainduari debozioa diotena elkartuko direla aurreikusten da. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren kofradiak jakinarazi duenez, santutegiak bost meza hartuko ditu bihar: 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean (meza nagusia) eta 18:00etan. Elizkizun bakoitzaren ondoren nahi dutenek Aralarko ainge-

ruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute.

Urtero moduan, Aralarko santutegiak defuntu meza hartuko du. Igandean izanen da, 12:30ean. Elizkizun hori aurten hil diren santutegiaren aldeko kofrade, anaiarteko eta ongile guztien oroimenez izanen da. Mezan Gaudeamus gregoriar abesbatzak kantatuko du. Talde berak gregoriar-bezperak abestuko ditu santutegian, 17:00etan. Elizkizunaren ondoren fededunek aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute.

# Arrozaren sinbologia elkargune bihurtuko da

Jaki unibertsala da arroza. Arroz aleak bazter guztietan berdina dira, baina hura prestatzen dutenak pertsona desberdinak dira. Aniztasun hori guztia domekan ikusteko aukera izanen da Sarasate plazan, Munduko Arrozaren laugarren edizioan

### OLATZAGUTIA

Domekan, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak, Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, IV. Munduko Arrozak ekimena izanen da Olatzagutian. Plazatik 11:00etatik aurrera pasatzen direnek Marokoko, Saharako eta Senegalgo sukaldariak lanean ikusi daitezke. Aurrenekoek kuskusa eta gainontzekoek arrozak nola prestatzen dituzten galdetzeko aukera izanen dute bisitariak.

Haiekin batera Sakanak Harrera Harana, Zaska, Nafarroako Zurrumurruren Kontrako Sareko eta Help-Na elkarteetako kideek ere arroza egingen dute. Haiek guztiak 13:00etatik aurrera dastatzeko aukera izanen da.

Anitzartean Zerbitzuko teknikari Begoña Zestau Baraibarrek aurkezpenean azaldu zuenez, "arroza mundu guztian jaten da, unibertsala da. Baina tokian tokiko errezetak daude. Beraz, arroza berdina da, baina des-



Juan Pedro Higuero, Bego Zestau, Maria Razkin eta Hicham El Ogdji antolatzaileak.

berdin prestatzen da. Pertsonak ere hala gara, berdina baina desberdinak".

Zestauk jakinarazi zuenez, Munduko Arrozak ekimenarekin batera sentsibilizazio gunea izanen dela. Zaskak zurrumu-

ruak desaktibatzeko argibideak emanen ditu. Sakana Harrera Haranak, berriz, migratzaileen egoeraren berri emanen du. Haurrendako txokoa ere prest izanen da.

## Sanmiguel ospakizun gehiago

Ekain, Arbizun eta Lizarragan San Migelen omenezko ospakizunak izanen dira bihar

### EKAI / ARBIZU / LIZARRAGA

Ekain ospakizun eguna da San Migel. Ekaidarrek paella prestatuko dute kontzeju-etxe beheko aldean dagoen txokoa afalduko dute. Jatekoen ondoren, mahaian kontu kontari edo bestelako jokoetan ariko dira. Musika ekipoa eramanen dute eta festarako doinuak hark zabalduko ditu. 50 bat ekaidar biltzea espero dute bihar, herrian edota kanpoan bizi direnak.

Bestalde, San Migel eguna arbizuarrendako egun seinatu etako bat da, udalak aatea, auzatea, eskaintzen baitu.

Plazan, bihar, 20:00ak aldera, elkartuko dira arbizuarrak. Koadrila batzuk afariak egingen dituzte. Azkenik, Lizarragako San Migel kofradiako kideak ere elkartuko dira bihar. Elkartean gosalduek ondoren, sanmigeldarrak herriaren gainean dagoen ermitara joanen dira, 11:00etan, mezara. Elizkizuna despedituta, herriarrendako auzatea eskainiko dute. Hangoa despedituta, atzera ere, elkartean bazkaltzera elkartuko dira. Akordeoilariaren doinuekin festa giro ederrean pasako dute arratsaldea.



Elizkizunaren ondoren auzatea eskainiko dute Lizarragan. ARTXIBOA

## Udalak kultur irteera antolatu du lastailaren 6rako

Arakilgo Udalak Leitzako Peru Harri museoa eta Tolosa feria egunean ezagutzeko irteera antolatu du. 08:30ean abiatuko da autobusa Arakildik. 09:30ean Iñaki Perurenaren bisita gidatua izanen da. Hura despedituta, 11:30ean Tolosarako bidea hartuko dute. 14:30ean Alde Zaharrean bazkaldu ondoren, 17:00etan hiria ezagutzeko bisita gidatua izanen dute. 19:00etan, Arakile- ra bueltan etorriko dira.

Asteartera arteko epea dago udaletxean izena emateko (948 500 101 edo 634 584 226 telefonoak). Arakilen errolatutako helbuek 25 euro pagatu beharko dute, hurrek, berriz 18. Errolatuta ez daudenek 30 edo 20.

# OLAZTIKO SANMIGELAK

## Festari eskainitako asteburua

Garai batean Sanmigeletan ospatzen zituzten olaztiarrek festak. Ospakizunen data aldatu bazuten ere, irailaren 29aren inguruan beti izaten da zer ospatu Olaztagutian. Eta hala izanen da asteburu honetan ere. Denetarik jasotzen duen egitaraua borobilduko du domekako artisau azokak, 19 ekoizle bilduko dituen. Haren ondoan Munduko Arrozak ekimena izanen da.

### OSTIRALA 28

**19:00** Txupinazoa, kultur etxetik. Erraldioen eta buruhandien konpartaren kalejira.  
**19:30-22:00** Dantzaldia, disko festa, San Miguel plazan.  
**20:00** Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.  
**20:00** Auzatea, San Miguel plazan.  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**23:30** Kontzertuak gaztetxean: Boot Boys, Ahuntzape eta Sofokaos.

### LARUNBATA 29

**09:00etan** Dianak, Olaztagutiko eta Ziordiko koruekin.  
**10:30ean** XII. Olaztagutia-Urba mendi lasterketa. Irteera eta helmuga San Miguel plazan. Horretaz aparte: haurrendako lasterketak GP motor txikiak (0-4 urte, norberak bere motorra ekarri behar); lasterketak (4-7 urte; 7-10 urte eta 10-13 urte). Antolatzailea: Sutegi Taldea, Laguntzailea: Olaztiako Udala.  
**11:00-13:00** Jolas parkea, Sarasate plazan. (Euria eginez gero frontoian).  
**13:00** Euskaraldiaren photocall, San Miguel plazan.  
**13:30** XII. Olaztagutia-Urba mendi lasterketako sari banaketa, San Miguel plazan.  
**14:30** Herri bazkaria, San Miguel plazan. (Euria eginez gero Erburua kiroldegian).  
**18:00** Apar festa, arteo futboleko pistan. (Euria eginez gero eskolako frontoian).



**20:00** Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.  
**20:00** Auzatea, San Miguel plazan.  
**20:00-22:00** Dantzaldia Edelweiss taldearekin, San Miguel plazan.  
**20:30** Euskaraldiaren photocall, San Miguel plazan.  
**00:00-03:00** Dantzaldia Edelweiss taldearekin, San Miguel plazan.

### DOMEKA 30

**11:00-14:30** Artisau azoka San Miguel eta Sarasate plazetan. (Euria eginez gero kiroldegian).  
**11:00-14:30** Munduko Arrozak.  
**11:00-13:00** Txutxu tren, irteera Intsumisioaren plazatik.  
**11:30** Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartarekin eta Altsasuko gaitariekin.

**12:00-14:00** Haurrendako teila eta baldosen sorkuntza tailerra.  
**13:00** Munduko Arrozen dastaketa.  
**16:00-19:00** Txutxu tren, irteera Intsumisioaren plazatik.  
**17:00** Pilota partidak: Aimar-Gorospe / Larrañaga-Lizarraga (Sutegi pilota eskolako kimuak). Olaetxea-Arbizu / Lansalot-Goioetxea (afizionatuak).  
**18:00** Parkour tailerra eta erakustaldia. Historia Memoriaren parkean. (Euria eginez gero Eskolako frontoian).  
**19:00-21:00** Dantzaldia Raizti dj-rekin, San Miguel plazan.  
**20:00** Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.  
**20:00** Auzatea, San Miguel plazan.  
**21:00** Zezensuzkoa.

## Artisauak

Ekoizlea	Zer	Herria
Jeingenekoa	Behi esnekiak	Etxarri Aranatz
Zubietako taloak	Taloak	Zubieta
Vialdea gurea	Eztia eta propoleoak	Arbizu
Poxtiñeneko gazta	Ardi gazta	Arbizu
Manekoazpi	Gozogintza	Mallabia
Luhei	Ehungintza	Irun
EGN creaciones	Osagarri pertsonalak	Oteitza
Alkunuz	Arabiako kosmetika eta bitxi gintza berebera	Iruñea
Javier Alvarez	Zura, harria, larrua eta hezurra lantzea	Olatzagutia
Guru marionetas	Txotxongiloak	Donostia
Josthari	Joskintza	Gartzaron
Hargintza	Hargintza	Arellano
... Y dale c@lor	Zurezko altzarien zaharberritzea	Iruñea
Trok tailerra	Larrugintza	Areso
Arima textil	Arto ostoen alfonbra-tapiza	Donostia
Aerorock	Aerografoz egindako pintura	Iruñea
Toñi Amado	Goma Evaren lanketa	Olatzagutia
K-Cuellos	Artilezko lepoak eta txanoak	Iruñea
Villanuevarte	Motozerraz egindako eskulturak	Aristregi

# UHARTE ARAKILGO SANMIGELAK



## Bigarren festak

Uhartearrek sanmigelen omenezko ospakizunak dituzte asteburuan. Festei hasiera herriko ondarearen alde 2014tik lanean dagoen taldeak botako du eguerdian. Parrandarako hiru eguneko ospakizunak hasiko dira horrela.

### OSTIRALA 28

**12:00** Festei hasiera emango dien suzeria, Ondare taldearen eskutik. Uhartar Arakilgo konpartaren girotuko du. Segituan, auzatea plazan.  
**14:30** Koadrilen arteko VIII. paella lehiaketa.  
**18:30** Sustrai Egunak antolatutako eta Fanfarreak girotutako kalejira.  
**19:00-21:00** Euskaraldian izena emateko aukera, plazan.  
**20:00** Auzatea.  
**20:00** Play back lehiaketa (izena emateko, 19.30ean plazan).  
**22:00** Zezensuzkoa.  
**00:30-04:00** Dantzaldia Kapri taldearekin.

### LARUNBATA 29

**12:00** Meza. Segituan, erraldoi eta buruhandien konparta gaiteroekin.  
**13:00** Auzatea.  
**14:30** Jubilatuen bazkaria (eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan izanen da).  
**Bazkalostea** Andoni Gastaminzarekin.  
**20:00etatik** 22:00etara Dantzaldia

Anitaren Bilobak taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30-04:00** Dantzaldia Kenbat taldearekin.

### IGANDEAN 30

**12:00** Meza.  
**12:45** Erraldoi eta buruhandien konparta gaiteroekin.  
**13:00** Auzatea.  
**16:00-18:30** Haurrendako puzgarriak. pilotalekuan.  
**18:00** Herri kirolak Bihurri enpresaren eskutik: erakustaldia, talde arteko pentatlona, motozerra frogara, koadrilen arteko jokoak, Iparraldeko jokoak (Aritzabaleta), aizkolariak (Hodei Ezeleta eta Bihurri) eta harrijasotzaileak (Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza).  
**19:00** Txokolate-jana.  
**20:00-22:00** Dantzaldia Ki dj-rekin.  
**22:00** Zezensuzkoa.





Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak eman zituen azalpenak, alboan Burunda klubeko Joxean Begiristain eta Aralar klubeko Maria Asun Erdozia zituela.

Gure bailaran txirrindularitza sustatzeko jaio zen egunak 25 urte bete ditu. Urte hauetan eguraldi ona, txarra... denetatik ezagutu dute bertan parte hartu dutenek, baina bizikleta hartzera animatu dira beti. “Jarduera ezaguna bilakatu da. Jendea zain egoten da Sakana Bizikleta Eguna heltzeko eta behin parte hartzen duenak errepikatzen du” nabarmendu zuen aurkezpenean Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Burunda klubeko Joxean Begiristain eta Aralar klubeko Maria Asun Erdozia izan zituen alboan.

Mankomunitateak antolatzen du eguna, Sakanako hiru txirrindularitza taldeen laguntzarekin eta Irurtzongo eta Altsasuko Udalen laguntzarekin, bi herri hauek izango baitira Sakanako Bizikleta Eguneko abiapuntu eta helmuga. Barranka Txirrindularitza Taldeak egiten du lan gehiena: ibilbidea zehaztu, egunean ibilbidearen kontrola eman eta beste, eta Burunda eta Aralar klubek dituzten baliabideak (autoak eta beste) jartzen dituzte eskura eta antolaketan laguntzen dute.

“Sakanan txirrindularekiko zaletasun handia dago, eta hiru klub hauek horren erakusgarri dira. Aspalditik daude martxan eta izugarritzko lana egiten dute; maila handiko txirrindulariak daude Sakanan, klubek egiten duten lan onari esker” nabarmendu zuen teknikariak.

# 25 urtez Sakanan gurpil gainean

**TXIRRINDULARITZA** 25. Sakanako Bizikleta Eguna Irurtzundik abiatuko da igandean, 9:00etan eta Altsasura iritsiko da ordu bata pasa, Zamartzen geldialdia egin eta gero. 25 urte hauetako laguntzaile eta parte-hartzaileei esker ona adieraziko zaie

## Irurtzun-Altsasu (41 km) eta atsedena Zamartzen

Bizikleta sustatzeaz gain, ibilbide ez lehiakor batean goiz atsegina pasatzea da egunaren beste asmoa, lagunartean “Sakana Bizikletaz ezagutzen”. Sakanako Txirrindularitza Eguna igandean goizeko 9:00etan abiatuko da Irurtzundik, eta 41 km osatu ondoren Altsasun despidituko da, ordu bata pasatxo. Zailtasunaren aldetik erdi mailakoa da, nahiko erraza.

Aurten Zamartzen egingo da atsedena. Partaideek ogitar-tekoa eramango dute, eta anto-

**300 PERTSONA DAUDE IZENA EMANDA ETA SAKANAKO BIZIKLETA EGUN ARRAKASTATSUA ESPERO DA**

lakuntzak freskagarriak banatuko ditu. “Zamartzeko eliza eta museoa zabalduko dizkigute eta bisita egiteko aukera izango dugu. Izan ere, bere kokapenagatik Sakana beti izan da pasabide historian zehar. Erromatarrek Astorga eta Bordele lotzeko eraiki zuten galtzadaren gainean, Erdi Aroan Done Jakue bide zaharra sortu zen, eta bide horrek Sakanan utzi zituen erromanikoaren aztarnak ezagutzeko aukera izango dugu, kasu honetan Zamartze” aipatu zuen Gerrikagoitiak. Zamartzeko museoiko Pilar mojak emango ditu azalpenak, beste sakandar adituekin batera.

## 300 pertsona daude izena emanda

Amaia Gerrikagoitiak nabarmendu zuenez, “egun oso jendetsua espero da. Familia eta

lagun talde asko apuntatu dira, jende asko”. Jakina denez, LH 5 mailatik aurrera, 10 urtetik aurrera, bakarrik joan daitezke haurrak, eta hortik behera heldu baten laguntzarekin. Irailaren 24an bukatu zen izena ematea eta arrakastatsua izan da. 300 pertsona daude izena emanda. Egunean parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago. Dohainik da, baina azpiegitura –autobusak, kamioiak...– eta batez ere aseguru ordaintzeko da ezinbestekoa.

Igandean mendiko bizikleta erabili beharko da eta derrigo-

**IGANDERAKO BIZIKLETA PUNTU PUNTUAN JARTZEKO ESKARIA EGIN DUTE ANTOLATZAILEEK**

rezkoa izango da kaskoa jartzea. DYAK eta Foruzainek zainduko dute ibilbidea, eta bizikleta puntuan jartzeko deia egin dute. “Mekanikoa egonen da, baina eguneko gurpil zulaketak eta uneko arazoak konpontzeko, ez bizikleta doitzeko” adierazi zuen Gerrikagoitiak.

Ez da derrigorrezkoa ibilbide osoa egitea. Nekatuz gero, bakoitzak nahi duen unean utzi ahalko du bidea. Horretarako daude kamioiak eta ibilbide atzetik doan autobusa. Badaude ibilbidera atsedendian gehitzen direnak, ibilbidearen lehen zatia egiten dutenak, euren herrietan batzen direnak... denetatik. Erraztasun guztiak daude parte hartzeko.

## Autobusak eta kamioiak

Proba ez lehiakorra hasi baino lehen, autobusak eta kamioiak herriz herri joango dira izena eman dutenak eta euren bizikletak norberaren herrian jasotzera, Irurtzuna eramateko. Aurten 3 autobus izanen dira eta beste horrenbeste kamioi, ibilbidea jarraituko duen beste kamioi txiki batekin batera.

Autobus eta kamioi bat 7:45ean abiatuko dira Ziorditik, gero Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaikutik pasatzeko eta handik Irurtzuna. Beste bana goizeko 8:00etan aterako dira Etxarritik, Ergoienatik pasa ondoren Arbizura joan eta handik Irurtzuna heltzeko; eta azkenak goizeko 8:00etan aterako dira Lakuntzatik, Arruazu, Uhartea Arakil, Irañeta, Ihabar, Hiriberri eta Etxarrenen geldialdiak egin eta gero, Irurtzuna iristeko. Eta proba bukatzen denean, Altsasutik, kontrako bidea egingo dute autobusek, parte-hartzaileak euren etxeetara eramateko.

Eguraldi ona iragartzen dute, gure paisaia, txoko, xenda, bide eta monumentu ikusgarriez gozatzeko hobeto. Horregatik aurreratuz gero Bizikleta Eguna irailera, eguraldia bermatzeko. “Eta egia esan ordutik urte gehienetan ona egin du” adierazi zuten aurkezpenean.

## Omenaldia

25. urteurrena denez, Irurtzunen ekitaldi xumea egingo du Mank-eko, “Sakanako Bizikleta Eguneko sortzaileei, laguntzaileei eta urte askotan parte hartu dutenei eskerrak emateko”.



Galarza eta Lapuente. SAKANA PATIN

## IRRIKAKETA Iratxe Lapuente eta Asier Galarza podiumean

XXVI. Extremadurako Etxea Trofeoa jokatu zen larunbat goizean Iruñean, San Juan klubeko instalazioetan, txikiaren mailatik hasita haurren mailara arte. Sakana Patin Taldekoek bertan parte hartu zuten eta bi irristalarik podiumera igotzea lortu zuten. Aurre benjaminen mailan Asier Galarza Zubiria urdiaindarrak hirugarrena sailkatu zen eta emakumezkoen kimuen lasterketa Iratxe Lapuente zierdiarrak irabazi zuen.

2018/2019 ikasturte hasieran gauden honetan, Sakana Patin Taldeak sakandar guztiei irristaketa taldeetan izena emateko gonbita egin die, irristaketan trebatzeko eta antolatutako proba eta lasterketetan aritzeko.

## AIZKORA Resano eta Beltza Nafarroako II. Mailako finalean

Aizkolariek hitzordu garrantzitsua dute igandean Igantzin. Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da, 18:00etan, Igantziko pilotalekuan.

Bost aizkolari lehiatuko dira guztira: Iban Resano dorrobarra, Asier Pellejero (Areso), Jesus Etxeberria (Beintza Labaien), Goizeder Beltza etxarriarra eta Mikel Indakoetxea (Zubieta). Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu beharko dituzte, eta irabazlea Nafarroako II. Mailako txapelduna izango da. Horretaz gain, lehen bi sailkatuak mailaz igoko dira eta heldu den urtean helduen mailan jokatu dute.

# Iker Mintegi Arabako Erlojupeko txapelduna

**TXIRRINDULARITZA** Burunda klubeko Intersport Irabia taldeko kadete altsasuarrak segundo bateko aldea atera zion Unai Aznar bere taldekideari. Juniorretan Ailetz Lasa hirugarrena sailkatu zen. Erbiti eta Etxeberria Innsbruckeko Mundialetan aritu dira

Larunbatean XLV. San Migel Saria jokatu zen Murgian,aldi berean Arabako Erlojupeko Txapelketa zena. Kadeteek 9 km-ko distantzia osatu behar izan zuten eta 15 km-koa, aldiz, juniorrek. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko txirrindulariek lan bikaina egin zuten.

### Kadeteetan txapela Altsasura

Kadeteetan Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi izan zen azkarrena. 9 km-ak osatzeko ia 12 minutu behar izan zituen (11:57). Segundo eskas batera sartu zen bere taldekide Unai Aznar (11:58). Gainontzeko taldekideei dago-kenez, Antonio Gonzalez 6.a



Mintegi eta Aznar, podiumean. BURUNDA

sailkatu zen (12:28), Hugo Aznar 9.a (12:45), Sergio Lopez 22.a (13:21), Jon Chamorro 31.a (13:45), Oihan Etxeberria 34.a (13:48) eta Willy Ismael Torres 49.a (15:55).

### Juniorrak

Junior mailan Jokin Murgialdai izan zen txapelduna (20:21). Quesos Albenizko Ailetz Lasa zierdiarra podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen (20:55). Bere taldekide Mateo Gonzalez 4.a sailkatu zen (20:59), Diego Gonzalo 34.a (23:17) eta Jony Vega 44.a (24:51).

Igandean juniorren eta kadeteen mailako Indurain Saria jokatu da Atarrabian.

## Erbiti eta Etxeberria Innsbrucken

Igandera arte jokatu dira Munduko Txirrindularitza Txapelketak, Innsbrucken (Austria). Elite mailan, Hiriberriko Imanol Erbitik bere taldearekin, Movistar Team taldearekin parte hartu zuen igandean jokatu taldekako erlojupeko gogorrean (62 km). Quick Step izan zen talderik azkarrena (1:07:25) eta Erbitiren Movistar Team seigarrena sailkatu zen, 1:31ra.

Junior mailan eta Francisco Javier Cerezo selekzionatzaileak hautatuta, Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrak lineako proban lehiatzeko zen atzo, Carlos Rodriguez, Ivan Cobo, Jon Barrenetxea eta Pelayo Sanchezekin batera.

# Lan bila zabilta?

## Eman izena Sakanako Mankomunitateko

kirol monitore,  
entrenatzaile  
eta aurkezle  
euskaldunen  
lan-poltsan!

Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea  
eta oinarriko kirol titulazioa izatea.

Izen-ematea:

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan,  
948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus postan.

Oharra:

Bereziki spinning, zumba, pilates eta yoga  
monitoreak behar dira.

Erabiltzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udal eta mankomunitateek zein enfitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan-haremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

**Mank**  
s a k a n a

Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua



Ezkurdiak eta Imazek irabazi zuten udako azken torneo garrantzitsuena. Arbizuarra pilotari onena izendatu zuten. ASPE

# Inork gustuko ez duen moduan txapeldunak

**PILOTA** Ezkurdiak eta Imazek irabazi zuten San Mateotako Torneoa, merezitakoa, baina Altunaren lesioa tarteko zela. Atzo gauean jokatu zen Codere Masterseko 2. finalerdia. Ezkurdia-Zabaletak edo Urruti-Martijak zuten jokoan finalera sailkatzea

San Mateo Torneoan erakustaldi bikainak egin eta gero, merezita iritsi ziren Joseba Ezkurdia eta Ander Imaz aurreko igandeko finalera. Berdin Jokin Altuna eta Andoni Aretxabaleta. Pilota zaleek final ikusgarria espero zuten eta hala izan zen lehendabiziko tartean. Atzeko koadroetan Imazek eta Aretxabaletak lehia estua zuten eta aurreko koadroetan bikain zebiltzan Ezkurdia eta Altuna. Final paretsua zen, eta bi bikoak parez pare zebiltzan. Baina gutxi iraun zuten festak.

“Laugarren edo bosgarren tantoan gindoazenean mina sentitzen hasi naiz ezkerreko besoko bizepsean eta min horrek

gora egin du” azaldu zuen partida bukaeran Jokin Altunak. Amezketakoa erizaindegira sartu zen 7 eta 9 galtzen ari zirenean, eta nahiz eta Iñigo Simón medikuak eta Andoni Aretxabaletak erretiratzea gomendatu, beste saiakera bat egin zuen Altunak, 9 eta 14ean finala utzi eta erretiratzea erabaki arte.

“Minarekin jarraitzen nuen eta sentsazioa nuen jarraituz gero lesioa larriagotuko ote zen. Pena handia izan da” nabarmendu zuen gipuzkoarrak. Ezker besoko bizepsean zuntz-haustura du eta bizpahiru asteko baja izango du. Aurki hasiko den lau t'erdian parte hartzea zalantzan dago.

## Ezkurdia, torneooko onena

Horrela, Ezkurdiak eta Imazek lortu zuten San Mateotako Torneoan gailentzea, baina inork gustuko ez duen moduan. “Pena handia izan da inori ez zaiolako gustatzen horrela irabaztea. Ezkerrarekin emateko beldurra-ekin ikusten nuen Altuna” aitortu zuen Arbizuko aurrelariak. Nolanahi ere, Ezkurdiak eta Imazek Logroñoeko torneo irabaztea merezi dutela ez du inork zalantzan jartzen. Sekulako torneo egin zuten eta finalean ere Altunaren lesioa baino lehen bide bikainetik zihoazen.

Joseba Ezkurdiak, torneooko pilotari onenaren saria jaso zuen.

## Jaenen kontra galduta, El Pozo hartuko du Osasuna Magnak

**ARETO FUTBOLA** Igandean, 13:15ean, Osasuna Magnak El Pozo Murciaren kontra jokatuko du, Anaitasunan

Osasuna Magnak garaipena zerden jakin gabe jarraitzen du denboraldi honetan. Larunbatean Jaenen kontra aritu ziren Imanol Arregiren mutilak eta gol sorta ederra jasota itzuli ziren: 6 eta 3 galdu zuten nafarrek.

Andaluziarrek gol aukera hobeak izan zituzten, eta haiek aprobetxatzen jakin zuten. Horrela 3 eta 0 aurreratu ziren 18. minuturako, baina atsedernaldia baino lehen Rafa Usinek gola sartu zuen.

Bigarren zatian Jaenek laugarren gola sartu zuen. Rafa Usinek berdeen bigarrena sartzea lortu zuen, baina Jaenek bosgarrena egin zuen. Rafa Usinen hirugarrenarekin Osasuna Magna 5 eta 3 hurbildu zen markagailuan, baina pozak gutxi iraun zuten seigarrena sartu baitzuen Jaenek. Horrela despeditu zen partida, 6 eta 3 galduta.

Entrenatzaile irurtzundarra ez zegoen batere pozik. “Lehendabiziko lau golak ekiditea posiblea zen, gure lau opari izan

## Ardoaren desafioa, Asperendako

Larunbatean Bodegas Domus Dei desafioa jokatu zen Logroñon. Lau t'erdian, Asegarceko Joanes Bakaikoa etxarriarrak 22 eta 20 hartu zuen menpean Dario, partida oso gogorrean 20ra berdinduta joan eta gero. Baina beste bi partidak Asegarceko pilotariak irabazi zituzten. Binakakoan Urrutikoetxeari eta Mariezkurrena II.ari 10 eta 22 irabazi zieten Irribarriak eta Julen Martijak, eta buruz burukoan P. Etxeberrria 15 eta 22 gailendu zitzaion Agirrerri. Horrela, Domus Dei upategietako 1.200 botilak Aspek irabazi zituen.

## Ezkurdia-Zabaleta edo Urrutikoetxea-Martija, nor sailkatuko zen Codere Masterseko finalerako?

Asteazkenean Codere Masterseko lehen finalerdia jokatu zen Labriten. Olaizola II.ak Imazekin osatu zuen bikoa, Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra aritzeko. Elezkano II.a eta Rezusta ikusgarri aritu ziren eta Olaizola II.aren eta Imazen ginetik pasatu ziren (7 eta 22). Horrela, Codere Masterseko finala jokatzeke sailkatu ziren Elezkano II.a eta Rezusta. Finala Iruñean jokatuko da, bihar, larunbatean, 18:00etan, hain zuzen ere Arena Navarra aretoko frontoia mustuko duen jaialdian (ETB1).

Beste finalerdia atzo gauean jokatzekeoa zen Labriten. Ezkurdiak eta Zabaletak Urrutikoetxearen eta Martijaren kontra aritzekoak ziren, bi bikoak larunbateko final handiko txartelaren bila. Partida gogorra aurreikusten zen. Irabazlea edozein dela, Codere Masterseko finalean sakandarren bat egongo dela ziurtatuta dago.

## PREFERENTEIA

**2. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Doneztebe - Etxarri Aranatz 1-1

**SAILKAPENA**  
PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Arrotxapea 6  
4 Etxarri Aranatz 4

**PARTIDUA**  
LARUNBATEAN  
16:30 Arrotxapea - Etxarri (El Iratin)

## Etxarrik puntu bat ekarri zuen

Partida oso lehiatuan, Ibanek Etxarri Aranatz aurreratu zuen baina atsedernaldia baino lehen berdintzea lortu zuen Doneztebek. 2. zatian saiakerak egon ziren, baina puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

## ERREGIONALA

**3. JARDUNALDIKO EMAITZAK**  
Iruña B - Lagun Artea 0-4  
Ardoi B - Altsasu 2-0

**SAILKAPENA**  
ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak B 9  
2 Lagun Artea 9  
4 Altsasu 6

**PARTIDUAK**  
IGANDEAN  
16:45 Lagun Artea - Ardoi (Lakuntzan)  
17:00 Altsasu - Salesianos (Dantzalekun)

## Lagunek irabazi eta Altsasuk galdu

Burilok eta Maizak sartutako golekin aurreratu zen Lagun. 2. zatian Zubiriak hirugarrena sartu eta dominatzaera pasa ziren lakuntzarrek. Sarriesek laugarren gola sartu zuen ate propioan. Zizurren, partida oso lehiatuan, Ardoi aurreratu zen, eta nahiz eta Altsasu saiati, Zizurkoak izan ziren bigarrena sartu zutenak. Punturik gabe itzuli ziren gureak.

## EMAKUM. ERREGIONALA

**3. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Altsasu - Burlades 1-2

**SAILKAPENA**  
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna 9  
6 Altsasu 6

**PARTIDUAK**  
LARUNBATEAN  
16:00 Amigo - Altsasu (Amigo)

## Gure neskek ezin izan zuten Burladesen kontra

Emakumezkoen erregional mailan Burlades taldea hartu zuten altsasuarrek Dantzalekun. Saiatu ziren, baina 1 eta 2 galdu zuten gure neskek. Bihar Amigoren kontra ariko dira.





Mutiko gaztea Ergoienako Biran.

## Gazteendako Atletismo Eskola urriaren 22an hasiko da

**ATLETISMOA** Andoni Jakak gidatuta, astelehenetan eta asteazkenetan, Altsasuko Dantzalekun

Sakanako Mankomunitatea ahalgin berezia egiten ari da Sakanako Gazteendako Atletismo Eskola sortzeko. Izan ere, txikiendako atletismo eskolak despeditu eta gero, 16 urtetik aurrerako gazteak atletismoaren inguruko informaziorik gabe geratzen dira. Norberak bere kabuz jarraitu behar du trebatzen.

Hutsune hori betetzeko sortu du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako Gazteendako Atletismo Eskola. 16 urtetik 35 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta haiei atletismoan trebatzen jarraitzeko jarduera eskaini nahi zaie.

### Urriaren 22tik maiatzaren 15era arte

Urriaren 22an hasiko da lanean Sakanako Gazteendako Atletismo Eskola. Andoni Jaka Irurtzun begiralearekin trebatuko dira gazteak atletismoan, astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 17:30era, Altsasuko Dantzalekuko atletismo pistan, maiatzaren 15era arte.

### Izena ematea zabalik

Izena ematea zabalik dago urriaren 11ra arte, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus). Prezioa: 50 euro.



Irabazleen podiuma Unanun: Ugartemendia, San Martin, Alda, Beregaña, Gonzalez eta Goikoetxea.

# Alda eta Beregaña azkarrenak Ergoienan

**ATLETISMOA** Larunbatean XIV. Ergoienako Bira jokatu zen, Unanun. Ibilbide aldapatsu, gogor eta gorabeheratsuan bero galanta jasan behar izan zuten korrikalariek. Iban Gonzalez eta Maite Beregaña lehen sakandarrak izan ziren

Eguzkiak gogor jotzen zuela jokatu zen, larunbatean, XIV. Ergoienako Bira. Aurten Unanu izan zen probaren abiapuntu eta helmuga. Ergoienako Bira Udalak antolatzen du, Dantzaleku Sakana klubaren eta Lasa Kirolak dendaren laguntzarekin eta makina bat komertzioaren babesarekin.

### Txiki guztiendako dominak

Hasieran kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren. Guztira 20 neska-mutiko inguruk parte hartu zuten. Txikienetan Oier Rubiok irabazi zuen, Iñaki Lizarragaren eta Mikel Orrioren aurretik eta handitxoenetan, aldiz, Mikel Martinez gailendu zitzaion Ion Unai Gonzalezi eta Asier Solisi. Bukaeran korrikalari guztiek domina jaso zuten.

Goizeko 11:00ak inguruan abiatu ziren helduak, 25 korrikalari guztira, probako 8,5 km-ak osatzeko prest. Hasieran Dorraora jo zuten, handik buelta hartu eta Unanutik pasatzeko. Ondoren,

Lizarragaraino heldu ziren, bertatik Dorraora joan ziren eta handik zuzenean Unanuko helmugara. Ibilbidea oso gorabeheratsua da eta lasterketa gogorra da Ergoienako Bira, parte-hartzaileek nabarmendu zuten.



Angel Auzmendi ergoendarra korrika.

Beroak proba are gehiago gogortu zuen.

### Alda hasieratik aurrean

Ibai Aldak hasieratik hartu zuen aurrea eta bakar-bakarririk iritsi zen helmugara (32:53). Hernaniarrak ia minutu eta erdi aterazion Imanol Ugartemendia bigarrenari (34:25). Iban Gonzalez urdiaindarrak izan zen hirugarrena eta probako lehen sakandarra (35:08). Emakumezkoetan, aldiz, txapeldun sakandarra izan genuen, Maite Beregaña uhartearra (43:51), Erkuden San Martin etxarriarraren (44:20) eta Nerea Goikoetxearen (45:07) aurretik.

Txapeldunek Unanuko inauterien pertsonaien kattelak jaso zituzten opari, eta bigarrenak eta hirugarrenak trofeoak. Horretaz gain, korrikalarien artean bertako produktuez osatutako makina bat lote zozketatu zituen antolakuntzak.

Orain arte Sakanako Atletismo Koparako baliagarriak diren

## Sailkapena

### Gizonak

1.Ibai Alda	32:53
2.Imanol Ugartemendia	34:25
3.Iban Gonzalez	35:08
4.Jose Javier Maiza	35:19
5.Sergio G. De Eulate	35:50
6.Ivan Sobredo	37:46
7.Juan Carlos Gomez	37:47
8.Iñaki Alvaro	38:56
9.Jorge Rodriguez	38:56
10.Fco. Gomez	38:59
11.Gaizka D. de Garaioa	39:53
12.Oskar G. De Andoin	40:24
13.Javier Martinez	42:56
14.Santi Agirre	43:37
17.Jose Antonio Salgado	44:20
18.Angel Barandalla	44:47
20.Aitor Mozo	45:25
22.Juan Carlos Gomez	46:39
23.Asier Solis	52:30
24.Angel Auzmendi	52:52

### Emakumeak

15.Maite Beregaña	43:51
16.Erkuden San Martin	44:20
19.Nerea Goikoetxea	45:07
21.Maite Zabaleta	46:18

hiru lasterketa jokatu dira: Zierdiko V. Herri Krosa (maiatzak 19), XV. Aitzkozar Herri Krosa (maiatzak 26) eta Ergoienako Bira. Koparako baliagarriak diren bi lasterketa geratzen dira: Sakanako Herri Lasterketa (azaroak 3) eta Barrikarteren XXXVIII. Oroimenezko Lasterketa, Altsasun (abenduak 8).

### Mercero txapeldun Iruñean

Joxemari Mercero unanuarra Ergoienako Birako korrikalari finkoetako bat izaten da, baina Ergoienako probak Iruñeko San Fermin Txikitoetako "Cross de los Carrozas" ezagunarekin bat egiten duenean Iruñean lehiatzen da. Aurtergoa 38. edizioa zen, 66 eta 85 urte arteko lau korrikalari lehiatu ziren eta 79 urteko Joxemari Mercero izan zen Karmen eta Navarrerria kaleak batu zituen lasterketan azkarrena. Unanuarra 14 alditan lehiatu da Cross de los Carrozas proban, horietatik 12 irabazi ditu eta gainontzeko bitan bigarrena sailkatu da. Unanuarrek "oso eskertuta eta kontentu" zegoela adierazi zuen.

## TXIKIEN PROBAN 20 NESKA-MUTIL INGURU ARITU ZIREN ETA PROBA NAGUSIAN 25 KORRIKALARI



Sakana Bizirik taldea Kluben Arteko Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako txapeldunordea izan zen. Tartean, Aritz Munarriz.

# Km bertikal arrakastatsua

**MENDI LASTERKETAK** 215 korrikalarik osatu zuten X. Uharte Arakil Km Bertikala, Iban Murua buru zela (40:37). Oihana Azkorbebeitiak emakumezkoen errekorra apurtu zuen (48:54). Munarriz, Beraza, San Martin eta Sakana Bizirik podiumera igo ziren

Uharte Arakil Beriain Km Bertikalaren osasuna ezin hobea da. Urtetik urtera ikusmin handiagoa pizten du eta horren isla da aurten Uharte Arakilgo proba Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izan zela eta Euskal Herriko Km Bertikalen Txapelketako azken proba zela.

216 korrikalarik ekin zioten probari. Ordurako Beriain ikusle ez betetzen hasi zen. Unanuar batek adierazi zuenez, sekula ez zuten horrenbeste jende ikusi Beriain alderantz. Beroa izan zen etsai nagusia: tarteka 30 graduko tenperatura zela aritu ziren korrikalariak 5 km-ko eta 1.023 metroko desnibel positiboko igoera gogorrean.

## Muruaren eta Azkorbebeitiaren erakustaldia

Aitor Osak lau aldiz irabazi izan du Uharteko proba, aurreko

urtean azken aldiz, eta gehiago ez zela arituko adierazi zuen. Berarekin entrenatzen den Iban Murua –iaz bigarrena izan zen Beriainen– haren lekukoa hartu zuen eta bera izan zen Beriainera lehena iritsi zena (40:37). Hala ere, elgoibartarrak ezin izan zuten Osaren errekorra (39:54) hobetzerik izan. Hasieratik erritmo gogorra ezarri zuen eta bakarrik egin zuen aurrera. Minutu eta erdi atera zion Joseba Diaz azkoitiarrari (42:03) eta bi minutu pasa Iñigo Alzola arrasatearrari (42:46).

## BERAZA BETERANOIA NAFARROAKO TXAPELDUNORDEA DA ETA EUSKAL HERRIKO HIRUGARRENA

Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitiak ez zuen areriorik izan. 2016an Maria Zorrozak ezarritako errekorra (49:47) 27 segundotan hobetu zuen Abadiñoakoak (48:54). Bost minutu pasa atera zizkion Majida Maayouf gasteiztarrari (54:18) eta 6 minutu luze Maricruz Aragon murtxantarrari (55:00). Maayouf justu iritsi zen eta osasun zerbitzuek artatu behar izan zuten.

## 23 sakandar

23 sakandarrek osatu zuten Beriain Km Bertikala. Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra 5.a sailkatu zen (43:13) eta Aritz Munarriz etxarriarra 17.a (47:26). Jose Luis Beraza uhartearra 27.a iritsi zen (48:25). Emakume sakandar bakarra aritu zen, Erkuden San Martin etxarriarra. 24. emakumezkoa izan zen (1:04:22).

Juniorretan Aitor Ajuria (44:32) eta Ane Iturria (56:27) izan ziren onenak eta beteranoetan Tedy Garzon (47:42) eta Maricruz Aragon (55:00). Jose Luis Beraza hirugarren beteranoa izan zen eta lehen uhartearra (48:25).

## Sariak

Uharte Arakilgo plaza txiki geratu zen. Korrikalariek indarrak berreskuratzeko auzate ederra zuten zain eta orduan sari emate ekitaldi luzea hasi zen. Lehendabizi, probako sariak banatu ziren. Tartean, Aritz Munarrizek eta Erkuden San Martinek jaso zuten lehen sakandarren saria eta Jose Luis Berazak hirugarren beteranoarena.

Ondoren Euskal Herriko Km Bertikalen Txapelketako sariak banatu ziren. Kadeteetan Aitor Ugarte eta Ane Iturria izan ziren txapeldunak, juniorretan Aitor Ajuria eta Nagore Uribarri eta promesetan Joseba Diaz eta Uxue Loizu. Txapeldun handiak Joseba Diaz eta Oihana Azkorbebeitia izan ziren, eta beteranoetan Tedy Garzon eta Montse Vazquez izan ziren lehenak. Jose Luis Beraza uhartearrak Euskal Herriko hirugarren beteranoaren saria jaso zuen. Kluben txapelketan Zortzietako taldea gailendu zitzaion Sestao-Alpini eta Txurregiri.

## Munarriz, Beraza eta Sakana Bizirik Nafarroako podiumean

Azkenik, Nafarroako Km Bertikalen Sariak banatu ziren. Mikel Beunza izan zen Nafarroako txapelduna, Xabier Zarranz txapeldunordea eta Aritz Munarriz etxarriarra hirugarrena. Emakumezkoetan Uxue



Jose Luis Beraza.



Erkuden San Martin.

## Sakandarrak Uharteko Km Bertikalean

### Sakandarren denborak

1.Iban Murua (Elgoibar)	40:37
5.Beñat Katarain (Lak)	43:13
17.Aritz Munarriz (Etx)	47:26
27.J.L. Beraza (Uhar)	48:25
37.Joxeja Maiza (Etx)	50:06
44.Alatz Agirre (Arb)	51:03
56.Jokin Bereziartu (Alts)	52:13
73.Patxi Cano (Alts)	54:24
74.M.Satrustegi (Arruazu)	54:25
75.Ioseba Iza (Arb)	54:30
79.Jabi Gasanz (Alts)	54:47
81.Xuban Mendiola (Etx)	55:01
84.Iban Gonzalez (Urd)	55:32
89.Amaur Ginea (Arb)	55:58
105.Iosu Garmendia (Etx)	57:19
108.Carlos Mañeru (Etx)	57:29
114.Fran Araña (Arb)	58:01
118.Ibon Ubeda (Etx)	58:21
151.Mikel Etxarri (Erg)	1:01:34
154.Xab. Etxeberria (Etx)	1:02:05
167.Mikel Beltza (Ergo)	1:03:31
168.Ibai Arrese (Etx)	1:04:01
171.Erkuden S. M. (Etx)	1:04:22
184.Aritz Jaka (Etx)	1:07:07

Loizu, Lucia Oskoz eta Amaia Segurola. Beteranoetan, Tedy Garzon dugu txapelduna, Jose Luis Beraza txapeldunordea eta Ramon Anaut hirugarrena. Emakumezkoetan, aldiz, Inma Sainz gailendu zitzaion Izaskun Sanzi eta Ana Reinari.

Kluben arteko Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa Txurregik irabazi zuen, Sakana Bizirik bigarrena sailkatu zen eta A4xKM taldea hirugarrena.



Peio Alzueta, aurtengo aurkezpenean.

## MENDIA Iratxo elkarteko Peio Alzueta Labianok utzi gaitu

Gaixotasun larri eta azkar baten eraginez hil zen, igandean, Peio Alzueta Labiano irurtzundarra. Iratxo elkarteko kidea, mendizaletasuna sustatzeko makina bat lan egindakoa da Alzueta, eta azken urteetan Sakanako Ibilaldi Handiaren antolakuntzako arduraduna zen. Iratxoko kideekin batera lan nekazina egin du Peio bere azkenera arte, eta euren guztien lanari esker Sakanako Ibilaldia da horren handia.

Txirrindularitzarekin ere harremana izan zuen Alzueta. Bere garaian Reynolds txirrindularitza taldeko idazkaria izan zen. Atzera eginez, Jesus Legarra, "Peluso" ezizeneko ezagututako irurtzundarrak sortu zuen Irurtzango lehendabiziko txirrindularitza taldea, gerora Reynolds izan zena eta gero egungo Movistar Team-taldean bilakatu zena. Eta bide horretan bere aletxo jarri zuen Alzueta. Ildo honetan, La Peluso zikloturista taldeak 2019ko maiatzaren 11n zikloturista martxa antolatuko du, Reynolds taldeko kide izan zirenak omentzeko, eta taldetik adierazi dutenez "Alzueta ere gogoan izango dugu".

Kirolaren maitalea zen Alzueta, baina kulturaren munduan ere ekarpena egin zuen, Irurtzango Antzerki Taldeko kidea baitzen. Txintxo-txintxo prestatzen zuen antzerki taldeko urteroko emanaldia.

Guztionez erantzuteko eta beharrezko informazio eta laguntza emateko beti prest, faltan botako dugu Alzueta urteroko Sakanako Ibilaldi Handiko aurkezpenean. Bidaia ona izan.

# Olatzagutia-Urbasa, aldaketaz josia

**MENDI LASTERKETAK** Bihar 12. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da, 10:30ean. Proba herrikoia izatea nahi dute; horrela, 15,23 km-ko proba izango da, aurreko urteko proba laburra, eta hurrengo lasterketak antolatu dituzte

Olatziko San Migel festak izanen dira asteburuan eta festei lotuta Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da bihar. Aurtengoa 12. edizioa izanen da eta berrikuntza nabarmenekin dator. Sutegi klubak antolatzen du proba, Olatziko Udalaren laguntzarekin eta hainbat babeslerekin, eta aldaketa nabarmenena probaren distantzian dago. Izan ere, orain arte ibilbide nagusiak 26,33 km eta 1.838 metroko desnibel positiboa zuen, eta azken urteetan 16 km eta 1.122 m desnibel positiboko ibilbide laburragoa antolatu zuten junior, kadete eta horrela nahi zuten korrikalariendako. Bada, aurtengo ibilbide bakarra egongo da, hain zuzen ere aurreko edizioetako ibilbide laburra zenaren oso antzekoa, 15,23 km-koa eta 900 metroko desnibel positibokoa.

## Helburua: proba herrikoia izatea

"Aurreko edizioetan gutxinaka parte-hartzeak behera egin zuten. 300 korrikalari izatetik 140 izatera pasa ginen. Izan ere, mendi lasterketak izugarri hedatu dira. Hasieran Olatziko proba zegoen egunean ia soilik Olatziko zegoen, eta aurtengo, esaterako, egun berean 7-8 proba dituzte. Eta proba ez bada Euskal Herriko edo Nafarroako Txapelketarako puntuagarria, parte-hartzea jaisten da. Azkenean pentsatu genuen gure helburua ez dela punta-puntan egoteko sekulako ahalegina egitea, lasterketa herrikoia egitea baizik; eta horregatik distantzia laburragoarekin probatu nahi dugu, ea bertako eta inguruko korrikalariak gehiago animatzen diren. Olatziko, Altsasun, Lakuntzan, Etxarrin, Irurtzunen... jendea mendira joaten da, eta gertuko jende hori erakarri nahi dugu bereziki, proba herrikoia izateko. Olatziko San Migel festei gure girotxoa gehitu nahi



Aurreko urteko Olatzagutia-Urbasako podiuma.

## HELBURUA PROBA HERRIKOIA GOA EGITEA DA: DISTANTZIA LABURRAREN ALDE EGIN DUTE (25,23 KM)

diogu, festa polita sortu, eta horregatik ere mendi lasterketa abiatu bezain pronto txikiendako lasterketak egingo ditugu herrian. Giroa sortzea da kontua, disfrutatzea eta ongi pasatzea" adierazi digute Sutegi klubeko Fermin Zornoak eta Gorka Acebesek.

Eta badirudi asmatu dutela, kontentua baitaude Sutegikoak; gutxienez 80 korrikalari inguru espero zituzten eta atzo arratsaldean 125 zeuden izena emanda. Pozik daude, helburua bete dutelako. Izena ematea gauerdian itxi zen ([www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus)).

## 15,23 km-ko ibilbidea

Ibilbidea aurreko urteko proba nagusiaren lehen zatia zena da, aurreko edizioeko proba laburra, hain zuzen. Korrikalariak goizeko 10:30ean abiatuko dira Olatziko plazatik. Zuzenean Ur-

basako ipar gailurreriako punturik altuenera joko dute, Tonorraundira (1.157 m). Bira gorabeheratsua egingo dute ondoren, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargainera helduko dira (1.153 m), atzera ere Morterutxora heltzeko. Hortik Olatziko helmugarako bidea hartuko dute, plazara iristeko. Probaren informazio guztia, ibilbidearen Wikiloc tracka barne, <https://olazagutiaurbasa.wordpress.com> web gunean dago.

## Hornidura eta sariak

Ibilbidean barna hiru hornidura gune egongo dira eta DYAK proba zainduko du. Korrikalariak plazako helmugara iritsi bezain pronto –ordu eta erdi baino gutxiago beharko dute azkarrenek–, auzate ederra izanen dute zain eta dutxa hartzeko aukera. Par-taide guztiek opari poltsa jasoko dute, eta ondoren sari ematea izango da. Sutegikoek azaldu dutenez, aurtengo ez da sari metalikorik izango. "Lehen hirurek, lehen betaranoek, lehen sakan-darrek eta lehen olaztiarrek, emakumezkoek eta gizonezkoek,

bertako produktuekin osatutako lote ederrak jasoko dituzte. Eta parte-hartzaileen artean loteen zozketak egingo dira.

## Haurren lasterketak

Helduak 10:30ean abiatu bezain pronto, hurrengo lasterketak antolatu dira San Migel plazan. Bi proba izango dira: GP motorrak (txikien motortxoak), 4 urte bitartekoendako –norberak bere motoa eraman beharko du– eta lasterketa arrunta, 4-7 urte, 7-10 urte eta 10-13 urte bitarteko adinekoendako. "Herriko festak dira, herri bazkaria dago, hurrengo puzgarriak eta beste hainbat kontu. Horrela, egun pasa polita egiteko aukera bikaina da Olatzira hurbiltzea" diote Sutegi taldekoek, eta sakan-darrei Olatzira hurbiltzeko gonbita egin diete.



## Etxarrikorako izena ematea zabalik

Udaberri elkarteak Etxarriko Udalaren, Nafarroako Mendi Federazioaren eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta jokatu da, Etxarriko ferietan, XLIII. Mendira Joan Etorria. Urriaren 7an izanen da, igandearrekin, goizeko 11:00etan abiatuta. Etxarriko plazatik aterata Hartzabalera, Bargara, igotzea eta jaitea da egin beharrekoa. 10 km eta 572 metroko desnibel positiboa duen lasterketa da.

Izena ematea zabalik dago [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) web gunean (10 euro).

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 28

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**UHARTE ARAKIL** Euskaraldian izena emateko aukera. 19:00etatik 21:00etara, plazan.

**ALTSASU** Euskaraldia prestatzeko bilera. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

**ALTSASU** Extremadurako kultur jardunaldiak. Ikus. 6 orria. 19:00etatik aurrera, La Encina elkartearen.

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. Irurtzun, Uharre Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olazti. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Yucatan filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU** Argi Bidea elkartearen 50. urteurrena: pintxopote berezia eta Garcia's & Flores-en emanaldia. 20:00etan, elkartearen

**OLATZAGUTIA** Boot bogs, Ahuntzape eta Sofokaos taldeen kontzertua. OGAK antolatuta. 23:30ean, Gaztetxean.

## LARUNBATA 29

**ALTSASU** Altsasu-Irurtzun-Goñi-

**Urrizola-Altsasu** 105 km-ko ibilbidea egingen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek. 08:30ean, San Juan plazatik.

**ARBIZU.** Borden ibilbidea. 4-5 ordu inguru behar dira lasai ibilita. 09:00etan, Sandindeiko zelaitik.

**ALTSASU** Gynkana: ongi etorri intxostiapuntara. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**ARBIZU** Koiuntura+ arte taldearen emanaldia. Amari Yoga Eskolak antolatuta. 20:00etan, Eko Kanpinean.

**ARBIZU** Euskaraldiaren aurkezpena. 20:00etan, plazan.

## IGANDEA 30

**ALTSASU** Txirrindularen XXV. Eguna 41 km-ko ibilbidea egingen dute Barranka Txirrindulari Taldeko mendi atalekoek. 09:00ean, taldeko egoitzatik.

**ALTSASU** Hondarribia-Pasaia Altsasuko Mendigoizaleak antolatutako irteera. Eguraldi txarra egiten badu, Urbanasan. 07:00, egoitzatik.

**ALTSASU** Zurrumurruak tailerra. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 13:00etara, Intxostiapuntan.

**UHARTE ARAKIL** Gaudeamus abesbatzak gregoriar bezperak kantatuko ditu. 17:00etan, Aralarko santutegian.

**ALTSASU** Intxostiapuntan ate

**irekiak.** Karaoke eta dantza. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU** Yucatan filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Cuadro flamenco taldearen *Entre aguas* ikuskizuna. 20:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 1

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako Iruñeko manifestaziora joateko autobusa. 10:30ean, autobus geltokitik.

## OSTEGUNA 4

**ALTSASU** Osasunez zahartzea lantegia. Informazio gehiago: 848423250. 17:00etatik 19:00etara, Erretiradunen egoitzan.

**ALTSASU** Las distancias filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU** Urriaren 1eko erreferendumaren urteurrena: elkarretaratzea eta mosaikoa. GED-k antolatuta. 20:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.



**IRURTZUN** Begoña Rastrilla margolariaren erakusketa. Irailaren 30 arte, Pikuxar euskal txokoan.




**UHARTE ARAKIL** Kristauak erasoan munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.




**ALTSASU** Yolanda Arnedoren Arte Dekoratioben taileraren ikasleen lanen erakusketa. Urriaren 24ra arte. Astelehenetatik ostiraletera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 28




Larunbata, 29



Igandea, 30



Astelehena, 31



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LEHIAKETAK

**GAZTEWOOD.** Altsasuko gaztearearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profila.

## IKASTAROKAK

**Adinduendako tailerra sortzeko aukera Etxarri Aranatz:** Buru trebetasuna, arintasuna eta bestelakoak landu nahi dituzten adinduendako tailerra sortzeko aukera dago. Interesa duenak hots egin dezala 948 460 004 edo 606 239 008 telefono zenbakietara edo kultura@etxarriaranatz.eus e-postara idatzi dezala.

**Olatzagutiako udalak margoketa eta lantzeria ikastaroak antolatuta ditu:** Margoketa astearte eta ostegunetan 17:30etatik 19:30era Kultur etxean. Lantzeria astelehenean (17:30etik 19:30ra) eta ostegunetan (18:00etatik 20:00tara) Kamiogaina jubilatuta elkartean. Lastailaren 15ean hasiko dira. Izena emateko irailaren 24tik lastailaren 5era Udaletxetik pasatu bulego ordutegian.

## OHARRAK

**Adona.** Odol-emateak Olatzin: Urriaren 3an, 17:00etatik 20:30tara. [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu)

**Olatziko irakurle taldea:** Hurrengo hitzordua lastailaren 19an, ostiralean, 21:00etan udal liburutegian. John Herseyren Hiroshima liburua izanen da hizketa gaia.

**Telebista saio baterako parte-hartzaile bila:**

Iruñerrian emititzen den Xaloea Telebistak Euskal City saioa grabatzen hasi zen Berriozarko egoitzan, maiatzean. Euskal jendea-ri zuzendutako saioa da eta edozein adinetako jendearen bila ari dira, hizkuntza-aren ikasketa prozesuarekin zerikusia duten esperientziak elkarbanatuz (nola hasi ziren ikasten, zergatik, etab...). "Mintzapraktika bat da, baina, grabatuta. Ongi pasatzeko esperientzia bat, euskararen alde egiten den bitartean". Xaloea teledibistatik diotenez, "zuen elkarte, herria, enpresa... promozionatzeko edota ikustarazteko, aukera bikaina da". Harrematarako: xaloaproduktioa@gmail.com edo 948 592 476 telefonoa (Izaskun Artigas)

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

**GoiEner.** Iruñeko helbide berria: Kale Berría 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hilero 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariaren aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural

kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 21 100 2173 87 0200346965

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota marbxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

OPATUTAKOAK/  
GALDUTAKOAK

## GALDUTAKOAK

**Irailaren 9an Etxarri eta Atauen artean TXIRINDULARI EGUZKI BETAURREKOAK** galdututa. Topatuz gero itzultzea eskertuko nuke. 626270446

**Belarri audifonoa Altsasun:** Josefina Arregi klinikaren aurretik pasatzen den Zelai kalean belarri audifono bat aurkitu zuten astelehenean. Klinikari gorde dute, bertatik pasatu.

## OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

[www.iragarkilaburak.es](http://www.iragarkilaburak.es)

## ESKELA



## Peio Alzueta Labiano

Seriotasuna lanean,  
gatza eta piperra lagun artean...  
nola ez bota Iratxon faltan?

## Iratxo elkarte

Irurtzun

## ESKELA

## Peio Alzueta Labiano

Eskerrik asko  
zuk emandako guziarengatik

## Sakanako Mendizaleak

## ESKELA



## Peio Alzueta Labiano

Peio, Sakanako ibilaldia  
umezurt utzi duzu, triste dago.  
Baina bizirik!!!

## Iratxoko mendi taldea

Irurtzun

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

## EZKONTZAK

- **Javier Arrasate Yeregui eta Oihane Saldias Otxotorena,** irailaren 22an Irurtzun
- **Daniel Martinez Ogalla eta Maialen Jaka Artieda,** irailaren 22an Etxarri Aranatz

## HERIOTZAK

- **Peio Alzueta Labiano,** irailaren 23an Irurtzun
- **Lucio Zubiria Irigoien,** irailaren 23an Urdiainen
- **Florentina Etxabarri Albistur,** irailaren 25ean Urdiainen
- **Martin Goikoetxea Montolio,** irailaren 25ean Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU  
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKI@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKI@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.  
**ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

tanatorioak  
**IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## BEILATOKIAK

**ALTSASU**

Santa Cruz, 6

**ETXARRI-ARANATZ**

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

# Artea Aralarako muga gainditzeko tresna

Azken muga arte jaialdia ospatu dute udan Aralarreko Zarateko lepoan. Helena Santano, Sagri Mauleon, Rosa Arnanz eta Maite de Miguel artista sakandarrek parte hartu dute jaialdian. Mugaren inguruan hausnartzea du helburu jaialdiak

## SAKANA

Artearen bitartez mugak apurtzea du helburu Azken Muga jaialdiak, baita artea landa eremuetara eramatea ere. Hortaz, artearen bidez bi mugetako herritarrek elkartu nahi ditu jaialdiak. Ekainean hasi ziren jaialdiaren ekimenekin Zarateko lepoan, Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean. Muga "sinbolikoki" apurtzen zuten performance-a egin zuten bi mugetako dantzariak eta aktoreak. Apurketa horretan momotxorroak egon ziren.

Azken muga proiektua 2016an jarri zuten martxan. Mugaren inguruan gogeta egiteko hel-



Sakanako lau artistak interbentzio artistikoan. UTZITAKOIA

buruarekin jaio zen. Landa eremuak husten ari zirela ondorioztatuta, Zarateko inguruan bizi ziren herritarrek zuten harremana berreskuratzea bultzatu nahi zuten, izan ere, Azkarate (Nafarroa) eta Bedaio (Gipuzkoa) artean hiru kilometro baino ez daude. Hortaz, muga batek banatzen baditu ere, herritarrek harreman ona omen zuten. Artea da mugen arteko harremanak berpizteko bidea. Artea bere adierazpen guztietan.

Jaialdiko antolatzaileak Helena Santanorekin harremanetan jarri ziren. Jaialdian parte hartzeko gonbita luzatu zioten, eta Santanok Artebide arte kolektiboari komentatu zion: "lau emakume agertu ziren prest jaialdian parte hartzeko". Azkaraten performance bat edo "interbentzio artistiko" bat egin behar zuten. "Helburua natura-erikoko harremana zuen interbentzio bat egitea zen, betiere natura asko eraldatu gabe". Sagri Mauleonek, Rosa Arnanzek, Maite de Miguelek eta Helena Santanok parte hartu zuten.

Egun polita izan zela azaldu dute Mauleonek eta Santanok.

"Zarateko lepora joan ginen eta gure interbentzioa egin genuen. Hainbat artistarekin hitz egiteko aukera izan genuen ere". Interbentzioan egingo zutena aurretik planteatu zuten, baina gero lekuan "eramaten utzi" zuten. Naturan ematen diren "hutsuneekin eta gorputzarekin" aritu ziren lau artistak.

Lurrean haien gorputzekin hutsuneak egin zituzten eta gero horiek hainbat materialekin bete zituzten, arte lanak sortuz. Ondoren, sua eman zieten. "Gure interbentzioa desagertuko da. Denborarekin joango da. Eta hori zen gure helburua ere". Naturan aurkitutako elementuekin egin zuten artelana, "naturan eraginik sortu gabe".

Jaialdia ekainean hasi zen eta irailaren 24an amaitu zen. Hala ere, urtean zehar ekimenak egiten dituztela argitu du Santanok: "kontzertuak egiten dituzte, dantza jaialdiak... udan zehar arte plastikoak landu dituzte, baina denetarik egiten dute". Zarateko Zaretetxe bordan parte hartu zuten artisten erakusketa egin zuten ere. "Eskultoreak ziren gehienak".

## Altsasuko Kultur guneko denboraldi berria martxan

Antzerkiak, musikalak, kontzertuak, zirkua, ikuskizunak, baita zinema ere. Udazken eta neguko denboraldirako egitarau anitza prestatu du Altsasuko udaleko kultura zerbitzuak. Gustu guztietarako eta adin guztietarako emanaldiak prestatu dituzte. Gainera, urtero bezala, Altsasuko kultura eta arte taldeen emanaldiak ere izanen dira Iortia agertokian. Urte amaieran izanen dira hauek.

Goi mailako ikuskizunak izanen dira Iortia kultur guneko denboraldi berrian. Platea programaren kalitatezko zigilua dute emanaldiek. Hortaz, urriaren 6an, 19:00etan, Oliver Twist musikala izanen da Iortian. Broadway World Spain 2017 saria irabazi du ikuskizunak. Umezurtz txikiaren istorioa Lirica Iberica teatro konpainiaren eskutik etorriko da. Abendura bitarte Iortian egonen dira ikuskizunak askotariakoak dira: Camut Band-a, Manez eta Kobreak, La zaja antzerkia, Golazen-eko gazteak eta abar.

## Dekorazio arteak erakusketa denboraldia hasteko

Yolanda Arnedo Arte Dekorati-boen tailerreko ikasleen lanen erakusketa izanen da urriaren 14ra arte, Iortia kultur guneko erakusketa gelan. Yolanda Arnedo Arte Dekorati-bo tailerreko ikasleek objektuak eraldatzen dituzte. Hainbat teknikaren bidez, eta eskuak eta irudimena erabiliz, altzariak, lore-ontzi, pitxerrak, botilak, jostailuak eta abar dekoratzen dituzte. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan izanen da erakusketa urriaren 14ra arte, astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandeetan 16:00etatik 20:30era.

Arte Dekorati-bo tailerrean bi urtetan egindako lanaren erakusketa da Iortian prestatu dutena. Urte hauetan tailerrean parte hartzen duten emakumeek hainbat teknika baliatuz lore-ontzi, pitxerra, botila, altzari, koadro, dekorazio objektuak, kuxtak eta abar eraldatu dituzte.



## BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

## Crossroads blues

"Robert Johnson bere diskoetan soilik izan zen, mitohutsa izan zen" Martin Scorsese

Mississipin, Clarksdaleko bidegurutzean, Robert Johnsonek bere arima deabruari saldu zion, modu honetan garai guztietako gitarra-jotzaile hobereena bihurtuz. Zenbat izanen da egia eta zenbat mitoa?

Robert Johnsoni buruz ezer gutxi dakigu, bere jaiotze data ez da ezaguna eta bere heriotza oraindik ere misterio bat da. Robert 1938an zirkunstantzia bitxietan hil zen. Non? ... "bidegurutze" batean. Traizioa, adulterioa eta hilketari buruz hitz egiten da. 27 urte inguru zituela Beltzeburekin zuen zorra ordaindu zuela dioena bada.

Robert tipo bakartia eta beti iragaitzaz zegoena zela esaten

da. Bere aitak familia utzi behar izan zuen zurien lintxamendu batengandik ihes. 1929an ezkondu zela ziurra da eta bere emaztea urte bat beranduago zendu zela. Bakarrik dago edo ordaindu beharreko prezioa da?

Ezagutu zutenek gitarra-jotzaile txarra eta talentu gutxiko musikaria zela diote. Johnson bolada batez desagertu, eta egun arte bluesaren historian izan den musikagile, gitarra-jotzaile eta abeslari hoberearen moduan itzuli da.

Nola liteke? Berak arima saldu zuen galdetzen ziotenean. "Bidegurutzean gaueko hamabiak arte itxaron nuen, deabrua azaldu zenean nire gitarra eman nion. Itzuli zidan eta nire eskuak giderritik



labaintzea besterik ez nuen behar izan".

Bere bizitza laburrean, hainbat abesti grabatu zituen eta horietan deabrua maiz aipatzen da.

Bluesman honen izena duten hiru hilobi daude, baina badirudi bat bera ere ez dela benetakoa. Kondairak dio, zuhaitz baten azpian, bidegurutze batean lurperatuta dagoela, "NI ETA DEABRUA" izeneko bere abestian eskatzen zuen bezalaxe.

# "Musika garaikideak asko du esateko"

Etxarri Aranazko Abesbatzak Nafarroako Musika Garaikidearen jaialdiaren bukaera kontzertua egingen du bihar, irailaren 29an, 20:00etan, Iruñeko Kondestable jauregian. Kontzertu "oso garrantzitsua" da Abesbatzarendako

ETXARRI ARANAZ

"Ohore bat" da Etxarri Aranazko Abesbatzarendako NAK Nafarroako Musika Garaikidearen jaialdian parte hartzea. Gainera, ohorezko eginkizuna izanen du jaialdiaren barruan: bukaerako kontzertua. Bihar izanen da abangoardiazko musika eta zinema uztartzen duen jaialdiaren amaierako kontzertua, Iruñeko Kondestable jauregian, 20:00etan. Musika korala abangoardiazko zineman da kontzertuaren izenburua.

## Kontzertu garrantzitsua

"Abesbatza asko daude, eta guri esan digute". Alicia Armendariz Abesbatzaren zuzendariak Nafarroako Musika Garaikidearen jaialdiaren bukaerako kontzertua egitea "oso garrantzitsua" dela azaldu du. "Azken urteetako emanaldi garrantzitsuena dela esanen nuke".

NAK jardunaldia irailaren 21ean hasi zen, Iruñean. Musika garaikideko adituen elkarte baten antolatzen du, musika garaikidea aztertzeke xedearekin. Aurren, gainera, musika garaikidearen eta zinemaren arteko harremana aztertu dute. Jardunaldi diziplina aniztatuak ekimen bat da; hortaz, besteak beste, bost aurkezpen, bi tailer eta bost kontzertu egin dira. Etxarri Aranazko Abesbatzak eskainiko duen kontzertua jardunaldiaren amaiera izanen da.

Etxarri Aranazko Abesbatzak jardunaldien "filosofiarekin" bat egiten duela azaldu du Armendarizek. "Puntako jardunaldi bat da. Proposamenak kalitate handikoak dira". Musika garaikidearen inguruko jardunaldien hirugarren edizioa da aurtengoa.

"Abesbatzan aspaldi hasi ginen musika garaikidea lantzen". Baita zinemako musika ere, izan ere, Disney ekoiztetzeko abestiekin kontzertu arrakastatsua eman zuen, besteak beste. Orain-



Etxarri Aranazko Abesbatza. UTZITAKOIA

goan, "zineman erabili den musika garaikidearen inguruko kontzertua da". Errepertorioa osatzea ez da erraza izan, "oso musika gutxi" omen dago. "Lan nekeza izan da, asko karrakatu behar izan dugu filmetan garrantzia duen musika topatzeko". Azkenean, 30-35 abestiko zerrenda osatu zuten eta horietatik errepertorioa osatu zuten.

## Konpositore ezagunak

Daniel Lynch, Terrence Malick, Andrzej Wajde, Paolo Sorrentino edota Stanley Kubrick zinemagileen lanetan ez zuten daiteke Abesbatzak interpretatuko duen musika garaikidea. Zinemagile hauek oso "ausartak" izan zirela esan du Armendarizek, garai horretan erabiltzen zen musika "klasiko-erromantikotik" alde batera utzi zutelako eta garaikidea zen musika erabili zuten. Musika konformismoarekin apurto zuten.

Beraz, abesbatzarako sortutako abangoardiazko musika zinema garaikidean zer esan duen obrak aukeratu dituzte. Samuel Barber, Arvo Pärt, John Tavener, Györgi Ligeti, Zbigniew Preisner, Arthur Honneger,

Krzysztof Penderecki, David Lang eta Sebastian Monek dira, besteak beste, lan horien konpositoreak. "Lan guztiak abesbatzarako idatziak izan ziren, ez da adaptaziorik egin behar izan, eta batean abesbatza bat ateratzen da filmean ere".

Hogei pelikulatan baino gehiagotan agertzen den Samuel Barber konpositorearen lana azpimarratu du Armendarizek: "oso ezaguna da, imajinario kolektiboan dago haren lana". Gainera, Pendereckiren abestiaren interpretazioa kontzertuaren une "handia" izanen dela aurreratu du. "Oso lan handia da, eta prestatzea zaila izan da". Hala ere, autore guztiak "puntakoak" direla azaldu du Armendarizek.

Urte hasieran hasi ziren lanak irakurtzen eta "hainbat" hilabete daramate kontzertu honetarako entseatzen. Oso kontzertu garrantzitsua dela azpimarratu du Abesbatzaren zuzendariak: "ohorea da guretzat, baita errespetua ere". Dena ongi ateratzea nahi du. "Musika garaikideak zer esateko handia dauka eta ez da entzuteko zaila. Aukera bat ematea gomendatzen dut".



Napardeath filmaren filmaketaren une bat. @ATAUNOFTHEDeAD

## 'Napardeath' zombien filma grabatuko dute Urbasan

Bihar, irailaren 29an, egingen dute filmaketa. "Zonbi, momia eta txirindulari-distopikoak" behar dituzte

SAKANA

Napardeath filmak zombi karlisten, momia nafarren eta txirindulari post-apokaliptikoen istorioa kontatzen du. Maiatz bukaeran filmatu behar zuten filmaren "azken guda" Urbasa-Andia parke naturalean, baina eguraldi txarraren ondorioz bertan behera utzi zuten. Bihar, irailaren 29an, parke naturalean itzuliko dira, eta figuranteak behar dituzte.

"Azken eszena grabatu behar dugu Urbasan zombi karlista eta txirindulari post-apokaliptiko bandoaren eta momia nafarren

arteko azken gudua edo bataila", azaldu dute ekoiztetzetik. Hortaz, bataila irudikatzeke figuranteak behar dituzte. 50 bat extra behar dituzte. "20-25 karlistarendako arropa dugu, 5 edo 7 txirindulariendako eta beste 20 edo 25 momiarendako arropa". Hala ere, jende guztiak parte hartzeko aukera izanen duela esan du. Karlistek galtzak gorriak eta momiek praka beltzak eramatea gomendatzen dute.

Bihar 10:00etatik 19:00etara egin dute deialdia Urbasako jauregia pasata. Informazio gehiago katihotsak@gmail.com-en.



## Ahotsaren doinuak jarraituz

Kantua eta dantza uztartuz emanaldia eskaini zuten Etorrizuna dantza eskolak eta Etxarri Aranazko Abesbatzak. Hortaz, dantzariak abesbatzaren ahotsen doinuak jarraituz dantzatu zuten. Etxarri Aranazko Kultur zerbitzuak antolatu zuen emanaldia, udari eta plazako emanaldien sasoiari amaiera emateko asmoz.

11 GALDERA

# "Euskal Herrian artelan handiak egiten ari dira"

Anabel Arraiza lakuntzarra Zurriolako Butaka Zinemaldiari buruzko telebista saioa aurkezten aritu da. Zinemaldiak irauten duen bitartean egunero zinemari buruzko saioa egiten du, euskara hutsean. Hortaz, Zinemaldia bete-betean bizitzen ari da.

**Erkuden Ruiz Barroso** LAKUNTZA

## 1 Zurriolako Butaka aurkezten duzu. Zer da?

Zurriolako Butakaren zazpigarren urtea da aurtengoa. Berriak eta Hamaika Telebistak hutsune bat betetzeko sortu zuten. Zinemaldiari begira ez zegoen ezer euskara hutsean. Hedabide gehiago gehituz joan dira eta egun sei hedabideren arteko elkarlana da: Berria, Hamaika, Gaztezulo, Irutxuloko Hitza, Zinea.eus ataria eta, aurten, Kanaldude iparraldetik. Elkarlanean aritzen gara eta giro paregabea, gainera.

## 2 Euskal ekoizpenek ere leku garrantzitsua dute, ez?

Bai, egunero saio bat euskaraz edukitzeak Euskal Herriko ekoizpenei tokia egiteko beste modu bat da. Euskal herritarrendako zabalkundea egiteko beste era bat da; gertuagoa, etxekoagoa.

## 3 Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Oso polita. Seiak bat gaudela komentatzen dugu; sei hedabide gaudelako elkarlanean eta platoon aritzen garenetik falta zaigu bizkaitarra, beste herrial-

deak baititugu. Oso giro polita sortzen da. Hedabide ezberdinak gara, arlo ezberdinetan aritzen direnak, baina oso harreman polita sortu da.

## 4 Nola sortu zen saio hau aurkezteko aukera?

Hamaika Telebistarekin iaz hasi nintzen saio batzuk aurkezten eta aurten ere egon naiz. Aukera hau z zenean Hamaika Telebistatik ni bidaliko nindutela esan zuten. Ez naiz zine aditua, ezta gutxiago ere. Baina zalea bai eta gustuko dudana arlo bat da. Zinema barrutik ezagutzeko aukera izan dut. Eta horrelako aukera baten aurrean ezetza esatea izanen litzateke akats bat.

## 5 Espektatibak zenituen?

Banekien zer nolako saioa zen, zer egin behar genuen, zer formatu izanen zuen saioak eta saio bakoitzean zer joanen zen ere bai. Aurretik oso prestatuta zegoen dena. Elkarrizketa guztiak ere lotuta zeuden. Hoberena da ez daukagula inolako epemugarik. Hortaz, elkarrizketak egiten ditugun bitartean jendeari esaten diogu luzatzeko aukera dutela. Orduan, horrek ematen

dizu lasaitasuna badakizulako elkarrizketatua ere lasai dagoela. Zu lasai zaude, baita elkarrizketatua ere.

## 6 Zinemaldiaz disfrutatzeko aukera duzu?

Disfrutatu dut, baina beste era batera. Zinemaldian bertan ez naiz egon filmak ikusten, ikusi ditut aurretik prentsarako paseak egin dituztenean.

## 7 Eta baduzu faboritorik?

Euskal ekoizpenak ikusi ditugu gehien bat. Euskal Herrian artelan handiak egiten ari dira eta Zinemaldi honetan horien eredu badaukagu. Sail ofizialean dagoen Euskal Herriko ekoizpen bakarra, *Dantza*, Telmo Esnelaena zoragarria da. Hitzik ez da erabiltzen, dantza da protagonista nagusia eta irudia da presentzia handiena duena. Zoragarria da nola kontatu daitekeen istorio bat dantzaren bidez. Gomendatzen dut itsu-itsuan. Bada beste ekoizle nafar bat *Another day of life* helduendako animaziozko filma egin duena. Oso polita. Eta badira gehiago. Nazioarteko zinemaldi batean gaude eta gainontzeko herrialdeekin bat gaude.



Anabel Arraiza Zurriolako Butaka saioaren platoon. URTZI URKIZU

## 8 Asko aldatzen da Donostia egun hauetan?

Donostian bizitzen egon nintzen eta ezagutu nuen Zinemaldiko gaueko giroa. Orain ari naiz eguneko giroa ezagutzen. Egia da festa asko egoten direla, eta kanpoko jende asko gerturatzeko delat Donostiara Zinemaldiaren aitzakian. Xarma berezia sortzen da eta Euskal Herri mailan horrelako jaialdi bat edukitzea... oso polita da. Gainera, gero ikusten dituzte aktoreak haien tarte libreetan Donostiako Alde Zaharrean pintxoak hartzen. Eta, bai, pertsonak dira.

## 9 Urte hauetan Zinemaldia aldatu da?

Nik ez dut hori nabaritu. Garai horietan oso gazte nintzen eta Donostia bera handia iruditzen

zitzaidan. Horrelako jaialdi batean egotea oso handia zen ere.

## 10 Txutxumutxuren bat entzun duzu?

Niri oraindik ez zaizkit ailegatu, ez zaizkit horrelakoak iritsi; baina seguru egon badirela. Festetan sortzen den giroa askotan da hurrengo lana zein izan daitekeenaren bila dabiltza, ekoizleak eta banatzaileak egonen dira non saldu dezaketen begira... lanean daude asko.

## 11 Autograforik eskatu dituzu?

Ez, ez ditut lortu. Eta ez ditut eskatu. Patxi Bisquert-i argazki bat eskatu diot berarekin. Zinemaren munduan hasi nintzenean Bisquert pelikula hartan zegoen. Eta argazkia eskatu diot. Baina laguna dudalako, eta miresten dudalako.

## Bazkide sarituak

Iraileko sariak:

- Pili Yeregui Urmeneta (Etxarri Aranatz)
- Eneka Irizar Martinez (Ziordia)
- Ruben Imaz Alcaide (Altsasu)
- Iratxo Elkarte (Irurtzun)

**1. SARIA:**  
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN

beleixeguaxe

CAMPING  
ARTAZA

Ekain berri

gaztezulo

lacturale